

ALKIZAKO HERRI ALDIZKARIA · 15. ALEA

ilategitik

2015

Alkizan dugu altxor ederra
mendez mende guk jasoa
gure herriko jende askoren
lana ta ez arazo
pago, haritza, lizar, urritza
hori da gure basoa
azken urletan hari beaira
dago Europa osoa

Baina hau guztia ez zen posible
zuek ez bazinete izan
aspaldi honetan nola eskertu
herria pentsatzen ai zan
gaurkoan beraz jaso zazue
berotasuna Alkizan
ta hartazue omenaldia
merezi dezuten gisan





nonzer

OILATEGITIK 2015
ALKIZAKO HERRI ALDIZKARIA
15. ALEA

- 3 Bizitza osoa baserriari eskainia
- 4 Piririka maldan behera
- 6 Bitxikeriak
- 8 Jubilazioa eta bere epealdi desberdinak
- 10 Aldapako lur-hormak
- 12 Erlijiosoak, herria eta herritarren arteko historia eta komeriak
- 14 Hondakinak arazo? ez, jarrera da arazo
- 15 Gutun lehiaketa
- 18 Sukalde txokoa
- 19 Atzo atzokoak
- 22 2015eko Alkizako festak
- 23 Urtea argazkitan 2014-2015
- 31 Denborapasa
- 32 Herritarrekin solasaldian
- 34 Ongi etorri eskolara!
- 35 Bi ikaslek bukatu dute lehen hezkuntza!
- 36 Gure piztiak. Etxeko karraskariak
- 38 Karramarroak ote gara?
- 41 Miren Fernandez, erretoretzeko kantaria
- 44 Pentsatzea, sentitzea, libre, denon eskubide
- 46 Mendiolako Pago Txikiren senide suntitua eta ahaztua

Azala eta kontrazaleko argazkiak: © Xabier Artola.

Argitaratzailea eta koordinazioa: Alkizako Oilategitik K.E.

Tirada: 800 ale.

Lege Gordailua: SS 814/01

Oilategitik aldizkaria doan banatzen da eta ez du bere gain hartzen bertan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



■ Jon Umerez

Bizitza osoa baserriari eskainia

Bizitza osoa baserrira dedikatu dutenei omenaldi eta errekonozimendu xume bat egin zitzaien aurtengo San Isidro zela eta.

Ospakizuna Maiatzaren 17an, igandea, goizeko 11etan izan zen Ostatun eta hamaiketako baten inguruan. Udalaren esker oneko hitzak eta ekitaldiaren zergatiaren azalpenaren ondoren, herriko umeak beraiek jarritako bertso batzuk kantatu zituzten eta ohorezko aurrezku bat eskaini zieten.

Alkizan asko dira urteetan zehar mendi eta baso lanetan aritu direnak, bizi oso bat azken finean baserriari dedikatu.

Azkenaldi honetan, bai Europako instituzioetatik bai gertukoagoetatik ere, orokorrean gure inguru naturalak eta, bereziki, Hernio-Gazume eremuak duten balioa aldarrikatu da. Hortaz, Europa mailan antolatu den **Natura 2000 Sarea** delakoan sartu da gure mendialdea, zaintzea merezi duten kontinente osoko ingurunen artean.

Izendapen horren aurreneko berri jaso zenetik, Alkizako Udalak behin eta berriro errepikatu du Natura horren balioa (bioaniztasuna) ezin dela ulertu bertan bizi eta lan egiten duen gizakiarik gabe, batez ere zuzeneko harremana duen baserritarra aintzat hartu gabe. Eta giza jarduera horrek ondare hau mantentze aldera izan duen begirunea eta eragina eskertu gabe.

Dena dela, Udalaren aldetik lotura hau hasiera hasieratik azpimarratu bada ere, ikusi da gehiago egin daitekela duen zentzua ikustarazteko: hitz orokorretan esateaz gain aurpegi eta izen zehatzak jartzea!

Eta hortik abiatzen da errekonozimendu ekimen hau: Alkizako herriari horrelako ondarea transmititzeagatik, bere ume eta gazteei herentzian aberastasun hau uzteagatik, eskerrak eman nahi genien bizitza baserriari eman dieten guztiei.

Aurten dagoeneko 75 urte betetzen zutenekekin hasi ginen eta datozen urteetan jarraituko dugu. Omenaldiaren urtean bakoitzari egindako argazkia eta esker oneko bertsoa Hernio-Gazume Interpretazio Zentroan dagoen baserriari buruzko gunean jarriko ditugu.





■ Manu Urruzola Aranzabe

Piririka maldan behera



Zelatungo erromeria iraileko igandeetan

©Unai Sorrain

Sentimenduen jolasetik eta jolasen sentimendura ibili ondoren, ez hiri, hiri ere ez, zuri ere ez. Neroni ere ez, noski. Aurten zure txanda da. Beraz, zuri idatziko dizut txoko honetatik.

Zenbatetan ez ote dugu entzun urtero-urtero Iraileko aldapa? Edo Irailaren zama? Malda? Pixua? Eta nik diot, pixua? Irailak aldapa? Izatekotan ere beherako malda izango da ezta? Zergatik? Hara.

Noski, ulertzen dut urduritasun punttu bat izaten dela halako uda bero, ero, jai, alai, luze bezain motzaren ondoren berriro errutinara bueltatzerakoan eta hortxe hasten zaizkigula abuztuaren bukaera aldera nerbioak, petralke-riak eta malaletxeak eta gainerakoak baina Irailaren bukaerarako ze kontentu gauden berriro denak. Eeeee?

Nago, mugarri den heinean ez dela aintzat hartzen behar den bezala Iraila. Ez ote dugun aitortzen bere edertasuna. Honatx Irailaren xarma.

- 1) Nola ibili gara oporretan Uztaila eta Abuztuan? Etxeko arropa, jostailu eta tresneri guztiak geurekin garraiatuz batetik bestera gainontzeko herrietan denda edo dena delakorik ez balitz bezela. Urte gutxian zenbat museo bisitatu ditugu? Elizak eta katedralak? Ene! Baina oporretan gaude eta aurrera! "Casco antiguotako" eliza eta museo denetan barrura!! eta ordainduz!!

Zenbat itsasoko hondar ekarri dugun iluntzetan etxera hondartzetatik. Baina oporretan gaude eta aurrera!

Zenbat kilo gehiago ditu gure gorputzak abuztu bukaeran? Jan eta edan, edan eta jan, baina oporretan gaude eta...

Irailean sartzen gara eta agur monastegiak, agur hondartzak eta baita jan-edanak ere. Xoxak ere gehienak xahutuak gainera. Primeran, lanera! eskolara! aupa Iraila!!



- 2) Gurasoak lanera eta etxeko ttikiak eskolara, bai. Hortxe izaten da normaltasunaren muga. Bukaera eta hasieraren muga. Pakea ere hortxe-hortxe berriro eskolan uzten ditugunean, baina nor egoten den urdurien lehen egunetan, batez ere oso ttikiak direnean? Beraiek edo gu? Ze bihotz ondokoarekin jotzen garen gure lanetara nigarrez uzten baditugu. Eskerrak berehala ohitzen diren beraien lagun eta irakasleekin. Hau dena noski Irailean. Biba Iraila!!
- 3) Zenba bikote edo senar-emazte ez ote da banandu edo banantzeko punttuan iritxi Abuztu amaierara? Uztaileko 744 ordu eta abuztuko 44.640 minutu elkarrekin pasa ondoren elkarrekin jarraitzen dutenak bederatzigarren hilabeteari eskerrak izango dira ziurrenik. Gora Iraila!!
- 4) Beste lauzpabost egun azpimarratzekoak alkizarrontzat herriko jaiak dira. Iruñian San Ferminen zain pasatzen badute urte osoa hemen ere urteko kezka eta arazoak alde batera uzteko egunak horietxek izaten dira. Gazte, heldu eta haurrak euren dibertsio uneez gozatzeko egunak dira Iraileko lehenak. Elkartzeko unea. Urte osoan kaso haundirik egiten ez diotenak ere elkarri bostekoa ematen ikusiko ditugu. Sorbalдан igurtziren bat ere, hortxe-hortxe. Festa da, ze demontre!
- 5) Eta azkenik, zer da Iraila Hernioko erromeriarik gabe? Mendi famatura zenbat eta zenbat jende ez ote da hurbildu Euskal Herriko txoko guztietatik. Goitik osteratxoa egin ondoren Zelatunen txorixo pintxoa, bazkal ondoren kafea ttanttarekin eta bertako belardian eguzkipean dantza batzuk egitea baino ederragorik. Masifikazioa? Benetan atsegina Zelatungo Iraileko ingandetako masifikazio hori, txo!

Ai Florentino, Florentino, Xabi Alonso eta Ilarra eraman hituen baina Hernio eta inguruak eramaten kostako zaik ederki. Horiek gureak dituk! eta etzegok munduan dirurik eramango dituenik. Ez horixe!

Guzti horregatik eta beste hainbat konturengatik zaitut gustoko Iraila. Azken batean lehen aipatu bezala bukaera eta hasiera, bien mugarri zara. Ba ote beste haiketetan gaina hartuko dizunik? Gainera dotorea da zure amaiera aldera galako hego haize epel horrekin ze ongi aurkezten duzun Urria. Hurrengo urte arte Iraila, laxter gara eta berriro zurekin. Bagoaz piririka ziztu bizian.



Alkizako jaien barnean sagardo dastaketa jendetsua.

©Unai Sorarrain



■ Jose Mari Aranzabe

Bitxikeriak

ALKIZAKO ALKATEAK 1731-2015

Miguel Irazusta, Jeronimo Alquizalet, Domingo Goyeneta, Miguel Antonio Aranzabe, Asencio Irazusta, Pedro Gueresta, Juan Bautista Insaurrandiaga, Domingo Echaveguren, Julian Roteta Ancieta, Juan Bautista Elola, Cristobal Garro, Juan Ignacio Urruzola Liazasoro, Julian Antonio Urruzola Aranguren, Jose Antonio Legarra, Pedro Roteta, Pedro Ignacio Urruzola, Pedro Legarra, Juan Antonio Legarra, Fermin Antonio Urruzola, Juan Antonio Urruzola, Juan Aramburu, Juan Bautista Lizarraga, Martin Echaveguren, Geronimo Ezcamendi, Juan Ignacio Aranzabe, Juan Domingo Elola, Juan Ignacio Roteta Ancieta, Pedro Antonio Irazusta, Jose Antonio Urruzola, Gregorio Jose Aramburu, Pedro Antonio Legarra Bengoechea, Juan Ignacio Urruzola, Geronimo Angel Alquizalet Zabala, Juan Santiago Urruzola, Juan Antonio Garro, Juan Antonio Aramburu, Jose Antonio Legarra Bengoechea, Pedro Antonio Aramburu, Jose Antonio Legarra Perurena, Gregorio Aranzabe, Jose Antonio Aramburu Arecetegui, Juan Antonio Aramburu Irazusta, Jose Manuel Legarra Apaiztegui, Juan Andres Tapia, Juan Francisco Alquizalet Zabala, Gregorio Antonio Roteta, Geronimo Jose Saizar, Domingo Ignacio Ugalde Orella, Juan Lorenzo Eceiza, Francisco Antonio Aramburu, Juan Domingo Legarra, Pedro Joaquin Legarra, Juan Andres Olasagasti, Ignacio Antonio Legarra Perurena, J. J. Tapia, Juan Ignacio Aramburu, Ignacio Maria Urruzola, Geronimo Ezcamendi, Juan Ignacio Aramburu Zabala, Juan Jose Zuasti, Juan Cruz Urruzola, Jose Maria Irazusta, Jose Antonio Urruzola, Juan Martin Olasagasti, Agustin Lavaca, Demetrio Legarra Murua, Pedro Jose Aramburu, Felipe Zuasti, Francisco Saizar, Eusebio Zubiaurre, Manuel Urruzola Albizu, Agustin Iruretagoyena, Francisco Urcola, Nicasio Urruzola, Juan Bautista Urretavizcaya, Ignacio Urruzola, Crispin Sorarrain, Higinio Antonio Elola, Jose Tolosa Echeverria, Mateo Aramburu Oruezabal, Jose Otaegui Otaegui, Rufino Iruretagoyena Saralegui, Juan Maria Ayerbe Zubiarraín, Javier Iruretagoyena Urquizar, Bittor Sorarrain Lasa, Antonio Zubiaurre Otegui, Jon Roteta Elola, Jon Umerez Urrezola.

Urtarrilaren 1 ean 363 biztanle zeuden erroldatuak Alkizan. Bajak: 14 beste herriren batera joandakoak, eta 3 hildakoak. Altak, berriz: 4 jaiotza, eta 2 beste herriren batetik etorriak.



Pedro Jose Aramburu Legarra, 1881etik 1883ra alkate izandakoa.

10 GIZONEZKO ZAHARRENAK

- Eizmendi Saralegi Antonio, 92 urte. Aginaga Bekoa
- Saralegi Eizmendi Pantaleon, 92 urte. Basazabal
- Arsuaga Eizmendi Angel, 91 urte. Bengoetxea Goikoa
- Urruzola Aranzabe Pedro, 90 urte. Intxaurrendiaga Aurrekoa
- Ayerbe Zubiarraín Juan Maria, 90 urte. Etxabe Txiki
- Saizar Goenaga Segundo, 88 urte. Otsamendi Bekoa
- Ayerbe Zubiarraín Joxe, 86 urte. Etxabe Txiki
- Goenaga Uria Martin, 85 urte. Gilisagasti
- Goenaga Goenaga Benito, 82 urte. Garmendi Goikoa
- Gorostidi Ugartemendia Juan Martin, 82 urte. Mariategi

10 EMAKUMEZKO ZAHARRENAK

- Urruzola Aranzabe Isabel, 92 urte. Elizegi
- Saizar Goenaga Aurea, 92 urte. Katalandegi Txiki
- Amondarain Amundarain Ildofonsa, 88 urte. Etxabe Txiki
- Aranzabe Iruretagoiena Mercedes, 88 urte. Arritzaga
- Iraola Iguaran Natividad, 86 urte. Bengoetxea Goikoa
- Cruces Perez Carmen, 85 urte. Juanena
- Ayerbe Zubiarraín Maria Josefa, 84 urte. Otsamendi Bekoa
- Lasa Landa Juana, 82 urte. Peru
- Arsuaga Eizmendi Justa, 82 urte. Aginaga Goikoa
- Mendiola Begiristain Miren, 80 urte. Igaranzabal




Aizpea



Alain



Allur



Angela





■ Juan Bautista Aranzabe “MATE”

Jubilazioa *eta bere epealdi desberdinak*

Gaur tokatzen zaigu hitz egitea termino horretaz (lau faseetan banatuko dugu, gure idatzian dauden termino desberdinak hobeto ulertzeko) zeinak, izan ere, badu zerikusi handia gure inguruarekin, zeren baserrietan baitago, hain zuzen ere, erretiratu kopururik handiena, dela hirugarren fasean dela laugarren eta azkenekoan.

Ez dakigu horren arrazoia zein den, baina susmo eta uste dugu hori dela, inondik ere, baserriarrek daramaten bizimoduagatik, hau da, etenik egin gabe lan egiteagatik, baita igandeetan eta jai-egunetan ere, eta goizean goizetik, zeren baserrietan beti baitago lanen bat egin beharra, dela baratzean edo soroan, dela belazeetan, ganaduarekin eta abar. Baina neure ustez, gure baserrietan bizi diren pertsonen bizitza luzearen sekretua dago, batik bat, jaten dituzten gauzetan, alegia, beren baratzetik eta berek hazitako animalietatik datozen jan-gauzetan; horri denari erantsi beharko litzaioke aire bikaina arnasten dutela eta, baita ere, oso botika gutxi hartzen dituztela jeneralean. Horregatik denagatik iristen dira edade handi-handietara, kalean bizi garenok oso gutxitan harraipatzen ditugun edadetara.

Baina, behin sarrera hau eginda, goazen aipatutako terminoak aztertzerara. Izan ere, esan genezake lehen fasea osatzen dutela harako haurtzaroa eta nerabezaroa pasa eta ikasten edo lehen lanaren bila dabilzan haiek. Bigarren fasea, berriz, ordutegi bat, eginbehar batzuk eta horrelako gauzak ezagutzen hasi direnak, hitz batean esateko, lehen fasea utzita lanean hasi direnak, nahiz eta gaur egun hori ez egon edozeinen eskura. Hirugarren fasea esan genezake osatzen dutela harako, beren edade edo bestelako arrazoiak direla-eta, erretiro esaten zaion horretan sartu diren haiek. Batzuek lehenago eta beste batzuek beranduago, baina erretiroa derrigor hartu behar dugu, nolabait esateagatik, garai horretara iristen garen guztiok, eta hortik pasa behar dugu, nahitaez, beste fasera, laugarrenera, iritsiko bagara. Neure ustetan, hirugarren fase horri atera behar diogu ahal den probetxurik handiena, zeren iruditzen zait ze, bizi osoa lanean emandakoan, behin ho-

naino iritsiz gero atsedenaldi on bat merezi dugula. Egia da, ordea, gaur egun medikuntza aurrerapen handiak egiten ari dela erretiro-garaia egokiagoa eta eramangarriagoa izan dadin osasunaren aldetik, ahaztu gabe sexualitatea ere badela osasunaren alderdietako bat, nahiz eta oso litekeena den garai hori askorentzat ez izatea berdina ekonomia aldetik, eta halaxe da, izan ere, kasu askotan, zeren gutako askok ez baitugu kezkarik izan garai horretara iritsitakoan zein egoeratan egongo ginen, hain urruti ikusten genuen! Hau ere esan genezake, beharbada: edade honetara iristen garen asko ez ote gauden prestatu gabe etapa berri honetarako. Eta horrela iristen gara laugarren eta azken fasera zeinak, behin iritsiz gero, eramango gintuzkeen egoera batera non egunetik egunera okerrago den, eta geure buruari galdetzen diogu ea nola den posible bizitza oso bat pasatzea ikasten eta lanean, eta askotan behar adinako lansari edo soldata irabazten ez dugula eta zorrotz bete beharreko obligazio batzuk edukita, nola baitira kontribuzioak, eguneroko gastuak, eta abar eta abar..., eta askotan dena eman ondoren, nola aurkitu litekeen bat bakardadean bai familian eta bai gizartean, alegia, bakardade bat zeinetarako inolaz ere ez gauden prestatuta, zergatik, beste gauza batzuen artean, bakardade hori onartzen oso zaila baita. Niri, ordea, iruditzen zait garrantzitsuena dela ez begiratzea atzera, egindako bidera, baizik aurrera, egiteko geratzen zaigun bidera zeina ia beti izaten den oso motza (proba bat egiteko, har dezagun metro bat eta begira dezagun 80 zentimetroak non dauden, eta gero ikusi bakarrik 20 zentimetro geratzen direla, eta hori suertea badaukagu...). Beraz, esna gaitezen eta askoz denbora gehiago eman diezaiegun, nola edo hala, zorientsuago egiten gaituzten gauzei, eta goza dezagun gehiago lagunekin, familiarekin, biloba-birbilobekin, e.a.

Esan genezake pasatzen den egun bakoitzeko egun bat gutxiago geratzen zaigula bizitzeko, eta horri erantsi behar diogu gaur egungo gizartea kontzientziaztea oso zaila dela eta egunetik egunera zailagoa dela eta guk ba-



daukagula egoera berrian ohitzea, eta horrek esan nahi du guztiz sartuta egotea Erretirodunen Elkarteren batean, Astialdi-, Gastronomía- edo Kirol-elkarteren batean, eta abar eta abar... (baina hori aurretik esandakoarekin hautsi gabe) eta, azkenik, bizitza sozialean partaide aktiboak izatea eta, nola ez, geure esperientzia gizartearen alde, besteen alde, eskaintzea, debalde eta eskuzabaltasunez eskaintzea ere. Lerro hauek sinatzen dituen honek, hain zuzen ere, badauzka zenbait eginkizun, hala nola, "Iturriza" Erretiratuen Elkarteko Idazkari izatea, prentsan eta eskuartean daukagun hau bezalako aldizkarietan idaztea, kultur idazketako lehiaketetan parte hartzea, Tolosako Iñauterien gaineko hitzaldiak ematea, "SOS Bebes Robados" taldeko kide izatea zoritxarrez, Xake Federazioko Lehendakari (15 urtez), antolatzaile (38 urte baino gehiagoz) eta jokalaria (bitan Gipuzkoako Txapelketa eta behin erretiratuen mailako Txapelketa Xakean), Xakeko Nazioarteko Arbitroa (jardun nagusia Euskadin eta Galizian), Tolosako Txinparta Elkarteko lehendakari izatea 10 urtez. Horietaz gain, partaidea naiz neure herriko Udaleko Festa Batzordean orain 35 urtetik, parte hartzen dut Iñauterietan, Sanjoanetan non herriaren omenaldia jaso nuen, ahal den txango edo eskurtsio gehien egin eta abar eta abar. Hitz bitan esateko, aktibitatez betea hirugarren fasean. Beharbada segi genezake zeruertzean ageri den guztiaren gainean idazten, asko idazten ere, bidean gure atzetik datozenentzat, eta, egia esateko, ez dirudi zeruertz hori oso itxaropentsu denik, nahiz hau sinatzen duenak nahi lukeen zeruertza zabaltea eta ikuspegi polit bat eskaintzea gure atzetik datorren belaunaldi horri denari, nahiz eta hori gure belaunalditik pixka bat differentea izan eta beste ideia batzuk, beharbada gureak baina askoz ere aurreratuagoak, eduki. Lerro hauetatik suerte on bat opa diet egunen batean erretiratuen kolektibo hau osatuko duten guztiei, horixe da-eta nire desioa, hala gu pasa ahal izango gara laugarren fasera. Fase horretan gure osasuna gero eta kaxkarragoa izaten da eta askotan faltan bilatzen da laguntza bat, dela familiaren aldetik dela gure egoera, kaxkarra jeneralean, arindu nahi duen pertsona baten aldetik, eta hori nahiz etxean egon nahiz geriatrikoren batean egon, gure bizitzako azkenak eta nahiko penagarriak izaten diren urteak pasatzeko, ahal den modurik txukunenean pasa ere, erremediorik gabe geure azken portura, heriotzara, garmatzen bidean.

Milaka esker Jose Mari Aranzaberi eta "Oilategi" aldizkariari neure lerroekin parte hartzen uzteagatik: "ESKERRIK ASKO"




2015ean Gipuzkoako Jubilatutako Txapelketan Txapelketa (mus 8 erregetara) Juan Zubeldia eta Juan Bautista Aranzabe, argazkian erdian.



■ Pello Joxe Aranburu Ugartemendia

Aldapako lur-hormak



Arratoi beltzaren ebakortz zorrotzak.



Alkizako Aldapa bailararen goi-partea, Otsamendi baserri ondotik-

Kepa antropologo lagunak aspaldi iradokitako gai batekin nator aurten: **Aldapako lur-hormekin**. Alkizan lur-hormak ez dira gaur goizekoak. Nik horrela eza-gutu nituen umetan, gurasoen arbasoek eraikiak dirateke edo, agidanez, antzinagokoak, alafede. Lur-horma edo paretaren definizioa emateko, Tiburtzio Beain baserriarraren saretik jaitsi dut: *harrien artean ez zen lokaririk jartzen, 'arrie arrin gañen jarrita' izaten zen, besterik gabe, 2005-03-27ko aipua.*

Oilategitik aldizkarian, 2004ko alean, leku-izen edo toponimia eman genuen, non ageri zen Siatso, 104 zenbakiarekin. Izen horren goi aldean daude beheko argazkiko eta Arpideko soro ohia, gaur belaze bilakatua. Lur-eremu haiei eusteko Arpideko arbasoek eraiki zituzten lur-hormak, hiru lau metroko paretak dituzte luzera osoan.



Tiburtziok zioenari jarraituz, gatozen Alkizako Aldapa bailarara, izenak adierazten duenez, pendiza, malda edo aldatsa besterik ez du gaurko bailarak goi-partean behintzat. Arbasoek sistema penoso, azti eta iraunkorra asmatu eta eman zieten lur eremu malkartsuei eusteko, lur-hormak eraikitzea, alegia.

Arpideko baserriko Siatsoko soro eta belazeak dira adibiderik garbienak, gaiari dagokionez. Lehenik, hasera eta ondoren beste eredu batzuk emango dira argazki bidez.

Horma horren hasera da goiko argazkia, jarraian kilometro erdi bateko luzera badu eta Arpideko soro, belaze eta malkarrei eusteko eraiki zituzten. Irudian ageri den horma hasiera besterik ez da, harlandu mardulak harri gainean jarrita, morterorik gabe, baina, hantxe diraute gaur, mendeetan zehar iraun duten antzera. Hormaren haserako ertzak badu gradu gutxiko inklinazio bat, soro ertzari eusteko. Edozein etxe kantoietako paretak izan zitezkeen, baina, ez, soroari eusteko eraiki zituen izenik gabeko harginen batek. Lur-hormek oinarri sendoa dute lur-zoruan.

Xehetasun adierazgarri gehiago: Lur-hormek Arpide eta Urruzola baserrien muga egiten dute zehar-bide guztian, bostehun bat metrotan. Bi zatitan banaturik daude. Lehen partean, 268 metrotan, Arpideko Siatsoko soro-belazeei eusten die/zien, bi pusketetan paretak erorita baitaude, jada, luizien erruz. Bi zati erorien batura 53 metro tara iristen da. Hormak badirudi Arpidekoek eraki zituztela, mugariak hormen behe aldean daudelako, beraz paretak Arpidekoak dira. Agian, auzolanean eginak izan ziren! Bigarren zatia, berriz, beste 240 metrokoa oso irregularra eta Arpideko sailetan dago.

Aldapa bailarako beste lur-horma gehiago. Urruzola baserri bera haitzaren gainean eraikirik dago, baina, atariak eta aparkalekuek badituzte horma sendoak, zer esanik ez beheko soroak.

Aldapan beti lurrak, urak eta luiziak goitik behera egiten du lehen, orain eta beti, naturaren legea da. Artikulu hau lagin bat besterik ez da, antzeko adibideak beste franko badira herrian zehar, komeniko litzateke, azterketa sakonago bat egitea, herriko lur-horma guztiak zenbatu, sailkatu eta adierazpen sakon bat emanez. Ea zein animatzen den!



Siatsoko harlanduzko horma sendoaren hasera.



Siatsoko hormaren jarraipena.



Urruzolako beheko soroaren horma leherturik.



Urruzola baserriaren atariari eusteko hormak.



■ Jose Maria Aranzabe

Erlijosak, herria eta herritarren arteko historia eta komeriak



Hona hemen zenbait gertakizun:

- 1536an Santa Klara komentuarik Alkizako kontzejuari adierazi zion 3 urte lehenago Esachipia baserria bi alkizarrei saldu ziela eta beraiei kobratu behar zizkiela zergak.
- 1609an erretore-etxea erre egin zen; ondorioz, bertan zeuden artxiboa eta dokumentuak erre egin ziren.
- Berrobiko elizako diruzaina izandako Joanes Zabalak Alkizako erretoreari Berrobiko elizak berarekin zeuzkan zorrak pasatu zizkion.
- 1654ko urtarrilean, Migel Arriagak, Amasako apaizak, Mikel Alkizalete Irurako apaiza bermatzaile zuela, Tolosako Francisco Hernandosorok bere aurka jarrita zeukan auziko gastuak ordainduko zituela agindu zuen. Irailean, Alkizako Jeronimo Alkizaletek Irurako Josepe Alkizalete apaizari lilarago lursaila saldu zion 36 dukatean.
- Iruñeako apezpikuak 1716an erregeari Igeldon, Etxabarri, Alkizan, Leaburun eta Anoetan hutsik zeuden benefizio postuetarako hautagai-proposamen ezberdinak bidali zizkion.
- 1731n kontzejua osatu bitartean, urtero Iturriozko San Juanen eta Albizturko Santa Marinan errogatibak kontzejuak ordainduta egiten ziren.
- 1731z geroztik, hauteskunde-egunean meza ospatzen zen eta 8 erreal ordaintzen zitzaizkion apaizari.
- Donostiako San Bartolome Extramuros komentuarerekin zentsua eduki zuen udalak, baita Hernaniko San Agustín komentuarerekin eta Martin Alkizalete erretorearekin ere.
- Juan Irazusta apaizak katona idatzi zuen euskaraz 1738an, Francoren garaira bitarte iraun zuena.
- Maria Aginagak jarri zuen kaperautzaren benefizioarekin arazoak egon ziren, ez zituztelako benefiziaduek arauak betetzen.
- 1737an Gregorio Rotetak Maria Otañori eta Maria Irazustari auzia jarri zien txakurrari tratu txarra eman, akabatu eta mingaina kendu ziotelako.
- 1740an Gregorio Roteta erretoreak auzia jarri zion bidaniarra zen baina Alkizan bizi zen Martin Otañori tratu txarrak emateagatik.



- 1761ean Ignacio Irarreta Asteasuko apaizak auzia jarri zion Pedro Irazusta alkizarrari bere erbi-zakurra desagerarazi zuelako kalte-ordainengatik.
- Miguel Martin Irazustak Madrigal zaharra berritu eta Madrigal berria eraiki zuen.
- Arizmendi baserria Donostiako San Telmo komentuarien jabetzakoa zen.
- 1785ean, Alkizako erretore eta Jose Gereztiaren bermatzaile zen Martin Esteban Alquizaletxe apaizak 100 dukateko zentsua saldu zion Anoetako Francisco Etxeberriari.
- 1796an tropa frantsesak Alkizara etorri eta udaletxeko artxiboa puskatu eta elizako atea puskatu eta 3 giltzako kuxtazarra (arkoia) zeuzkan diru guztiekin lapurtu zuten.
- 1815ean Iruñeako apezpikuak erregeari eta Gaztelako Kamarari Alkizan, Azpeitian, Errezilen, Itsasondon eta Albizturren hutsik zeuden benefizio postuetarako zenbait hautagai bidali zizkien.
- 1826an, Sorabilla, Legarreta, Alkiza, Zizurkil, Larraul, Irura, Asteasu eta Villabona herriek osatzen zuten Hernio-bea elkarteak Sorabillako Jose Larreta eta Alkizako Juan Bautista Legarrari ahalordetza luzatu zien artzapez-barrutiko kleroak egin behar zuten bilkurara joateko.
- 1831n, Andoain, Villabona, Aduna, Zizurkil, Alkiza, Asteasu, Larraul eta Urnieta herriek osatzen zuten Hernio-beako korriedoak ahalordetza luzatu zien Juan Bautista Legarrari eta Jose Antonio Zeraini Gipuzkoako artzapez-barrutiak egin behar zuten bilkurara joateko.
- Juan Bautista Legarra apaizak iraileko jaiak suspenditzeko eskatu zion udalari familientzat arropatan suposatzaren gastuagatik, gehienek egun horretarako arropa berriak erosten zituztelako.
 - 1836an, medikuarentzat etxea doan eta urtean 100 erreal eman zituen herrira mediku on bat ekartzegatik. Francisco Jose Aldasoro medikua etorri zen 9 urterako kontratatuta.
 - Gerrak gastu handiak suposatzen zituelako elizako kabildoak 20.000 erreal utzi zizkion herriari kargarik gabe ahal zuenean itzultzeko.
 - Eskolak doan ematen zituen.
 - 1846ko otsailean, testamentuan, maisu-maistrentzat etxea, baratza eta bi lursail Hernion utzi zituen. Gaur egun udalaren jabetzakoak diren Don Juanena, baratza eta maisu-maistren sailak.



- 1886an, Jose Santiago Balerdi apaizak idazkaria eta diruzaina kendu eta organista bat kontratatzeko eskatu zion udalari. Udalak ez zuen aintzakotzat ere hartu.
 - Geroago ardoa kontrabandoan sartzen zuela herrian eta isunak jarri zizkieten.
 - Hilerrarekin ere istiluak izan zituzten, baimenik gabeko pareta bat jaso zuelako, herriak bota eta lehen zegoen bezala uzteko agindu zion.
 - Hilerria handitu eta bedeinkatza Tolosako artzapeza etorri zen Gasteizko gotzaindegiak aginduta bakeak egitearren.
 - Mariategi baserrikoekin arazoak izan zituen ehizatik zetorrela txakurra baserri ondoan tiroz akabatu zielako. Isunak eta kalte-ordainak ordaindu behar izan zituen.
- Ramon Iguaran Garayalde Berandegun baserria eta lurrak Gasteizko apezpikutzari erosi zizkion. Baserri hau Aginagako kaperautzakoa izandakoa zen.
- Prudentxi Legarrak bere ondasun guztiak elizari utzi zizkion.

Horiek eta beste batzuk izango dira, baina aspergarria ez gertatzeko beste baterako utziko ditut.



■ Agurne Eizagirre eta Ixiar Irulegi

Hondakinak arazo? *Ez, jarrera da arazoa*



Alkizarroi gustatzen zaigu gure herria txukun mantentzea. Herritar bezala min hartzen dugu azken denboraldi honetan zabor gunetan, batik bat Errekaldeko gunean, ematen den zabarkeria ikustea. Bai eta Udaletxeko datuak agertzen duten bezala, errefuxan birziklatu daitezkeen zabor ugari azaltzen dela jakitean.

Ez gabiltza errudun bila, agian batzuk kanpotik ekarriak izango dira, baina ikusten da herritar guztiok egiteko moduko lana dela eta oraindik ere hobetzeko asko dugula.

Aspaldi dabilkigu hondakina/zaborraren gaia bideratu nahia. Orain dela hamarren bat urte eskolan ere proiektu bat baino gehiago eraman zituzten aurrera. Hezkuntza sailetik ere etorri izan dira eskolara ikastaroak ematera. Erreza zirudien: Murriztu, Berrerabili, Birziklatu. Haurrak, praktikara eramateko denbora bat behar izatea normalizat jotzen genuen. Baina...

Ondoren, Tolosaldeako Mankomunitateak eta Foru Aldundiak hitzaldiak antolatu zituzten. Udaletxeak pare bat bileretara deitu izan du. Eta Tolosako Amankomunitatearekin batera banan bana konpostgailu eta haizegailuak banatu eta azalpenak eman zizkiguten. Ahalegin guztien ondoren, oraindik ere norbaitek ez birziklatzea, ez al da axolagabekeria izango?



Hain zaila al da ohitura aldatzea?

Gutxienez, harraska azpian plastiko desberdinetan hondakina sailkatzea?

Organikoa, jarri dizkiguten ontzietara botatzea eta emandako haizegailuaz zaintzea?

Zer gertatzen da pertsona batzuegan, ekintza hauek suposatzen duten esfortzu hori ez egiteko? Zenbateraino sentitzen gara naturaren zati?

Inork ikusten ez gaituenean arduraz jokatzeko al dugu?

Zenbateraino pentsatzen dugu zer uzten ari garen gure seme-alabei, ondorengoei?

Ez ote du gai honek politikoen liskarretik kanpo egon behar? Bakoitzak bere talde politikoak esandakoa bakarrik jarraitu beharra al du?

Birziklatzen ez dutenak ohartzen al dira, beraien jarreragatik denok, zaborra gehiago ordaindu behar dugula?

Beti pentsatu izan dugu pertsonok badugula zentzu solidario bat. Bakoitzaren eguneroko jarrerak besteengan duen influentzia ikusteko gaitasuna. Gure ekintzetaz arduratzeko ahalmena. Azken finean GEU garelara gure ekintzen arduradun.

Inori ez zaigu gustatzen agindupean, zigorraren menpe...ibiltzea. Ez genuke nahi Alkizan zaborguneetan herritarrek arduraz joka dezaten, txipa jarri beharra izatea edo bideo zaintzaileak edo... Denon onurarako denon ardurara behar dugu. Alkizan aukera izan dugunez zaborraren bilketa kontrolik gabe egiteko, ba...bete dezagun!!!

Era guztietara, zorionak saiakera honetan gabiltzanoi, zeren gogoratu azken faktura, beste fakturen erdia ordaindu dugula.

ANIMO DENOI, AHAL DUGU ETA !!!



Gutun Lehiaketa



1. Saria
Oihana. Festeak eta Izarok.

2015-04-16

Kabro Izaro:

Ni Oihana naiz, zer moduz zaude? Ni ondo.
Badakizu Alkizako eskolako liburu guztiak desagertu direla??!!
Eta orain zer egingo dugu??
Zelnek lapurtuko zituen ez dakigu!!!
A ze misterioa orain guk erosi behar ditugu libururak, ez dakit zer egingo dugun!
Nire ustez helduren bat izan da baina non ezkutatuko zituen hainbeste liburu?
Aglan gauean lapurtu dituzte. Bero, hurrengo eskutitzean esango dizut nor izan den lapurra.

agur





Z. SARR
J. SARR

A-1

2015-04-21

Kaixo Oihana:

Begira zer gertatu zaidan gaur.

Eskolara joan naiz eta konturatu naiz eskolako jostailu guztiak desagertu direla.

Eta orain zer?

Zer egin behar dugu jostailurik gabe? Bila eta bila ibili gara eskolako toki gutrietan eta hala ere ez ditugu inon aurkitu.

Patiora joan gara eta gero gelara itzuli naizenean, jostailu guztiak han zeuden!!!!

Aze poza hartu dudan.

Skoloni
Z. SARR

D-1

EUSKALDUNA JAUREGIKO ESZENATOKITIK, ZU ZAUDEN
LEKURAINO. HEMEN ETA ORAIN -

zer esan duzun gaur, ostirala

Melilla gaur maiz:

Bi ikasleak ezarriak sartuak, ingurera lagaratuak. Ipati-aren beharrezkoak ezarriak sartuak. Babes eraso hartzen ezarriak sartuak (gaur epizimik klasako gaur ezarriak sartuak sartuak sartuak).

Honen dagoen ikaslearen, ikaslearen, ezarriak sartuak.

Ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan.

Ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan.

Ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan.

Ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan.

Ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan.

Ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan.

Ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan.

Ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan.

Ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan.

Ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan.

Ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan.

Ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan.

B-12

Aiana POLO
Z. SARR

FINLANDIA, 6666ko apirilaren 21a

Kaixo amatxo,

Zer moduz zaude?

Ez duzu sinisturako zer gertatu zaidan, ba dakizu Alkizan bizi nintzela baina orain Finlandiara joan naiz bizitzera.

Begira, hau da gertatu zaidana:

Finlandiara joateko Alkizan autobusa hartu behar nuen 9:00tan eta lehenengo autobusak alde egin zidan lo hartu osteko. Bigarren autobusa 10:00etan zen, hori harrapatu nuen, baina Madrilera joan behar nuen. Madrilera nijoala "San Sebastian de los reyes"en autobusa izugarri zen. Eta orain zer? Oinez joan behar izan nuen Madrilera, hirugarren autobusa beteta zetoerrelako eta laugarren autobusa atzerapenarekin zetoerrelako. Oinez joan nintzen Madrilera. Madrilera oinez joaten denbora asko galdu nuen eta hegazkinak alde egin zidan. Ordu erdi bat beranduago etorri nintzen eta bigarren hegazkinari itxaron behar izan nion. Etorri zenean hegazkinetan sartu eta Finlandiara joan nintzen. Kostata baino iritsi nintzen. Han, hori komerkiak!!! Joan eta orduan jabetu ez nintzen ba Finlandian Finlandesez hitz egiten dela eta ni euskaldun peto-petoa naizela.

Beno, orain Finlandesez hitz egiten ikastera noa eskolara, ea zer moduz moldatzen naizen.

AGUR ETA MUXU POTOLO-
POTOLOAK!!!!!!!

Aiana



D-1

Tuak egurrekin ezarri dugu, eta zinez izan da, zinez horri jantzen, baina zera dugu ezarriekin. Zergatik?

Begira hiri ditut. Arrosa hartu dit, gaur epizimik egiten ari nintzenen ez izan, oraindik leial eta politik itxarotz utzi dit.

Finlandiaren ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan.

Han izan da, eta hori zuzenean hiri? Zuzen ari da ikaslearen ordu irakurketan? Ez ezarriekin ari da. Ez ezarriekin? Ez al gaur ikaslearen ordu irakurketan? Baina, ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan.

Ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan.

Ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan.

Ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan.

Ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan.

Ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan.

Ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan.

Ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan.

Ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan.

Ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan.

Ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan.

Ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan.

Ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan.

Ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan.

Ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan, ikaslearen ordu irakurketan.

Pisno jolka.



*Iratxe Irujoa
AIZUOLAKO SAN PINO*

E-6

Edozen

2015eko apirilaren 28an

Madarikatua hie jerrual

Azkarnan, gertatu beharrikoa gertatu da, Alas, putamotxa, surria, kaloria!
 eta gure hizkuntza gabian topatu ez ditazalako bide gabia, botela, berruko
 amona baina arte oriatu eta oriatz madarikatuz busto aitzak. Ez, ez hie ki
 gabiego orietan ibartzeko, baina orain arte ere ... oriatz aitz enago eta sian
 harruko botanok ez zibela oriatz botetien, momentuzko bakarrik hieki zela,
 izate horretan abartzeko hizkuntza, baina gero ... hertze zela, zela biltzaia, berriz
 tripa orietan. Galaxia, ondorengo harruko sian eta zeltariko ibortza, oriatz jira hie
 haiek izate hizkuntza gogoratzen arren, alferrik! Euan, gertatu eta berriz botetara.
 Agindu hie, agindu, berriz arren oriatz biltzaia, baina... hie hertara
 izultzazkoan, ihikio gertu edo hie edo hieki zela, baina berriz oriatz
 sortzen hieki hieki orietan arte, biltzaia eta adierazte jarri arte.

Horietan bai, ni ere gustara hieki orietan hertara oriatz oriatz
 gertaren oriatz algera hertara hieki? Baina hieki puzo ondorean, orietan hieki oriatz
 hieki? Zer izate hieki oriatz hieki? Orditan eta oriatz hieki, hieki eta oriatz
 hieki, oriatz berriz baina hieki, oriatz, hieki ja, hieki oriatz, hieki hertara
 momentuzko oriatz oriatz, oriatz jira hieki oriatz, oriatz hertara hieki.
 Hieki hertara oriatz hieki oriatz, hieki hertara hieki, hieki hertara hieki.
 Hieki hertara hieki oriatz hieki oriatz, hieki hertara hieki, hieki hertara hieki.
 Hieki hertara hieki oriatz hieki oriatz, hieki hertara hieki, hieki hertara hieki.

Hieki hertara hieki oriatz hieki oriatz, hieki hertara hieki, hieki hertara hieki.
 Hieki hertara hieki oriatz hieki oriatz, hieki hertara hieki, hieki hertara hieki.
 Hieki hertara hieki oriatz hieki oriatz, hieki hertara hieki, hieki hertara hieki.
 Hieki hertara hieki oriatz hieki oriatz, hieki hertara hieki, hieki hertara hieki.
 Hieki hertara hieki oriatz hieki oriatz, hieki hertara hieki, hieki hertara hieki.

Eta hieki, hieki oriatz hieki oriatz, hieki hertara hieki, hieki hertara hieki.
 Hieki hertara hieki oriatz hieki oriatz, hieki hertara hieki, hieki hertara hieki.
 Hieki hertara hieki oriatz hieki oriatz, hieki hertara hieki, hieki hertara hieki.
 Hieki hertara hieki oriatz hieki oriatz, hieki hertara hieki, hieki hertara hieki.
 Hieki hertara hieki oriatz hieki oriatz, hieki hertara hieki, hieki hertara hieki.

jaka, oriatz oriatz hieki oriatz, hieki hertara hieki, hieki hertara hieki.
 Hieki hertara hieki oriatz hieki oriatz, hieki hertara hieki, hieki hertara hieki.
 Hieki hertara hieki oriatz hieki oriatz, hieki hertara hieki, hieki hertara hieki.
 Hieki hertara hieki oriatz hieki oriatz, hieki hertara hieki, hieki hertara hieki.
 Hieki hertara hieki oriatz hieki oriatz, hieki hertara hieki, hieki hertara hieki.

Hieki hertara hieki oriatz hieki oriatz, hieki hertara hieki, hieki hertara hieki.
 Hieki hertara hieki oriatz hieki oriatz, hieki hertara hieki, hieki hertara hieki.
 Hieki hertara hieki oriatz hieki oriatz, hieki hertara hieki, hieki hertara hieki.
 Hieki hertara hieki oriatz hieki oriatz, hieki hertara hieki, hieki hertara hieki.
 Hieki hertara hieki oriatz hieki oriatz, hieki hertara hieki, hieki hertara hieki.

Eta hieki hieki, hieki hertara hieki, hieki hertara hieki.
 Hieki hertara hieki oriatz hieki oriatz, hieki hertara hieki, hieki hertara hieki.
 Hieki hertara hieki oriatz hieki oriatz, hieki hertara hieki, hieki hertara hieki.

Hieki hertara hieki oriatz hieki oriatz, hieki hertara hieki, hieki hertara hieki.
 Hieki hertara hieki oriatz hieki oriatz, hieki hertara hieki, hieki hertara hieki.
 Hieki hertara hieki oriatz hieki oriatz, hieki hertara hieki, hieki hertara hieki.

Oriatz hertara hieki oriatz hieki oriatz, hieki hertara hieki, hieki hertara hieki.
 Oriatz hertara hieki oriatz hieki oriatz, hieki hertara hieki, hieki hertara hieki.
 Oriatz hertara hieki oriatz hieki oriatz, hieki hertara hieki, hieki hertara hieki.

Martina



■ Agurne Eizagirre eta Ixiar Irulegi



Sukalde txokoa

URDAIAZPIKO KROKETAK

OSAGIAK

Hiru koilarakada irin

- 1/2 l esne
- 75 g gurin
- Bi edo hiru urdaiazpiko-xerra (urdaiazpiko ondua)

KROKETAK BILTZEKO OSAGIAK:

- Irina
- 2 arrautza irabiatuta
- Ogi arraila
- Oliba-olioa

PRESTAKUNTZA

Gurina zatitan egin eta urtzen jarri kazola batean; urdaiazpiko txikitua gehitu eta salteatu. Irina gehitu eta pixkanaka esnea gehitu ondo nahastuz. Hogeit bat minutuz besamela egin etengabe nahastuz (zenbat eta gehiago nahastu, orduan eta irin gustu gutxiago). Behin orea eginda, orea azpil batean zabaldu.

Orea hozten denean, ore a ebaki eta irineztatu kroketei forma eman ez. Gero arrautzetan eta ogi arrailean pasatu, eta ondo berotutako oliba-olioan frijitu.

Elizegiko lxabelek, tabernarako hainbeste aldiz prestatutako errezeta eman digu. Ea berak egindako hainbat aldiz nork egiten dituen, bestela ba dakigu ez zaizkigula berari bezain onak aterako



Barnetegian, maiz ikasleekin egiten dituzte pastak etxera eramateko. Oso goxoak ateratzen omen zaizkie.

GURINEZKO PASTAK


OSAGIAK

- 100 g gurin
- 250 g irin
- 100 g azukre
- Arrautza 1
- Legamia (goilarakada txiki bat)

PRESTAKUNTZA

Arrautza irabiatu ondoren, azukrea nahastu. Ondo nahastuta dagoenean gurina gehitu (aurretik bigundua) eta nahasten jarraitu. Osagai hauek ondo bateratuta daudenean, pixkanaka irina eta legamia gehitzen joan ore a gogor samar geratu arte. Azkenik, arrabolez ore a zabaldu ondoren, nahi diegun forma eman (moldeak erabili ditzazkegu) eta aurretik berotuta izango dugun labean sartuko ditugu 180° C-tara 20ren bat minutuz.

On egin!!!



Atzo-atzokoak Alkizarron argazki zaharrak



Arantzazun.



Arritza.



Alkizan 1957an apaizgaien eguna ospatu zen. Kuzkurto eta ezkerretik: L.M. Segurola, J.M. Iztueta, J.R. Heriz txistularia, K. Ramirez eta F. Ormaetxea;. Atzean, zutik: J.M. Olano, J.A. Pagola, J.J. Portu, J.M. Muñoa eta J. Munduate.



Alkizako neska taldea.
Kuzkurto eta ezkerretik: ezezaguna, Leteberriko Agustina Iruretagoiena, ezezaguna, Beandoaingo Pilar Iguaran eta Urruzolako Kontxita Aranburu. Zutik: Iribitiko Mertxe Legarra, Arritzako Mertxe Aranzabe, Leteberriko Aranzazu Iruretagoiena, Luiseneko Maria Jesus Iruretagoiena eta Bentzalako Maitere Ugartemendia.



Antzietako Pepito Roteta eta Kukutegiko Maritxu, senar-emazteak.



Don Julian apaiza, Pollero, Santiago Gabirondo...



Laukotea.

Aurrean: Apaiztegiko Florentina Iraola eta Arpidegaraiko Pepita Beobide. Atzean: Beandoaingo Maria Jesus Iguaran eta Leteberriko Maria Jesus Iruretagoiena.



Alkizako korala.

Besteak beste, organista Txomin Olano, Don Ramon erretorea, Prudentxi Legarra...



Lehengusuak.

Aurrean, ezkerretik: Urruzolako Pantaleon Aranburu, Bentzalako Edurne Ugartemendia, Maitegiko Martin Gorostidi, Bentzalako Maitere Ugartemendia eta Urruzolako Modesta Aranburu. Atzean: Urruzolako Jaxinta, Maria Jesus eta Inisio Aranburu senideak, eta Maitegiko Enkarnasion Gorostidi.



Beandoaingo senideak: Santi, Isidro, Paulo, Benita eta Dorotea.





2015^{eko} Alkizako festak



IRAILAK 8, ASTEARTEA

- 12:00etan** Meza nagusia
- 14:00etan** Jubilatuen bazkaria
- 17:00etan** Haurren eta helduen toka txapelketa.

IRAILAK 10, OSTEGUNA

- 16:00etan** Haur jolasak
- 18:00tan** Txokolatada
- ondoren** Antzerkia haurrentzat
- 21:00etan** Herri afaria Ostatu jatetxean.
- Ondoren** Erromeria Andoni Larrañaga eta Ansorregirekin.



IRAILAK 11, OSTIRALA

- 12:00etan** Apar festa haurrentzat
- 16:30etan** Intxaurrandiko belazean haurren eta helduen arteko futbol partiduak
- 21:00etan** Barrikotea
- 23:00etan** Bertso jaialdia: Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Amaia Agirre, Anjel Mari Peñagarikano eta Sebastian Lizasoren eskutik. Gai jartzailea: Haritz Mujika.
- Ondoren** Trikitixa Bide Batez taldearekin.



IRAILAK 12, LARUNBATA

- 10:30ean** Herriko haurren txirrindulari lasterketa.
- 17:00etan** Herriko gazteen arteko herri kirol saioa Izaskun Mendizabal eta Jon Zabalaren omenez.
- Ondoren,** Sagardo dastaketa.
- 23:00etan** Herri kirol saioa, aizkolari eta harri-jasotzaileekin.
- Ondoren** Erromeria Ingo al deu? taldearekin.

IRAILAK 13, IGANDEA

- 10:00etan** Meza
 - 11:00etan** Herriko gazteen arteko pilota partiduak
 - 12:00etan** Txakolin dastaketa
 - 17:00etan** Herriko beteranoen arteko pilota txapelketaren 3. eta 4. posturako partida eta finala.
- Jarraian festei amaiera emateko Laja II.a, Narbaiza eta Litxurdixorekin trikitixa emanaldia.



2014-15



Urtea argazkitan 2014-15

Unai Sorarrain

Irailean herriko jaiak





Abenduan 24an Olentzeroren etorrera





2014-15

Abenduan 31n San silbestre karrera





Martxoaren 8an Aiztondoko Klasika





2014-15

Apirilaren 10ean Euskal Herriko itzulia







2014-15

Ekainaren 23an San Juan sua







Hizki zopa

Kaixo. Berriro ere hemen gatoz, urtero bezala, herriko jendea pixka bat ezagutarazteko asmotan. Aurten, pixka bat aldatzeko, hizki berezi hau prestatu dugu.

Dakizuen bezala eskolan haur asko daude, eta pentsatu dugu beren ize-nak ikasteko modu bat hau izan daitekeela. Orduan, hemen doaz zaha-renetik behera 26 haurren izen-abizenak.

ZORTE ON.

E	G	J	U	O	K	S	D	F	S	B	H	U	F	A	D	F	I	J	P	K	G	H	J	G	K	L
R	T	L	O	U	H	L	G	H	J	K	L	Ñ	Z	X	B	N	M	O	E	R	T	U	I	O	P	A
T	R	O	G	N	A	R	O	A	I	T	U	R	R	I	O	Z	S	I	D	F	G	H	J	K	I	L
A	J	M	J	F	E	J	Ñ	Z	X	B	N	M	E	R	T	U	I	N	O	P	R	T	Y	U	R	J
I	M	A	N	Z	X	G	U	R	G	F	D	H	J	K	L	M	N	A	B	J	G	Y	R	T	A	M
M	A	R	K	E	L	S	O	R	A	R	R	A	I	N	S	E	D	T	R	T	U	I	O	T	I	B
A	R	K	R	U	N	P	G	R	D	A	A	E	R	T	D	G	Y	Z	H	J	Y	U	G	O	D	Z
R	I	E	O	G	Y	U	A	D	O	F	G	T	H	H	J	Y	U	G	F	T	Y	H	K	K	E	D
A	T	L	I	I	F	D	N	A	R	S	Y	I	O	P	F	G	I	O	H	A	E	R	N	M	P	R
L	Z	O	H	R	D	F	E	S	E	T	T	U	K	X	O	Ñ	J	E	B	S	W	S	J	D	E	R
T	P	D	A	D	E	G	I	F	B	A	M	I	K	E	L	M	E	N	D	I	Z	A	B	A	L	F
U	E	R	N	O	S	Z	O	I	G	G	H	L	D	X	A	B	M	A	E	T	G	U	O	P	L	G
N	L	I	A	R	Z	I	G	R	L	A	J	Ñ	Z	I	I	N	W	G	R	A	Y	I	P	M	E	B
A	L	O	F	R	G	G	A	U	Ñ	N	K	P	J	G	A	F	Z	A	S	T	F	H	Ñ	A	J	L
P	E	Z	E	U	U	E	T	A	P	E	K	M	N	H	R	B	D	A	A	E	D	G	K	I	E	H
L	J	O	R	L	R	T	E	R	T	O	I	E	R	G	O	I	K	O	E	T	X	E	A	A	R	O
O	E	L	N	M	U	R	R	R	R	G	A	R	E	R	D	L	P	O	O	O	K	I	L	L	O	I
I	R	A	A	M	B	A	U	A	E	A	S	T	Y	U	R	F	U	H	I	R	O	D	V	E	Y	U
U	O	Y	N	A	M	P	R	L	W	I	D	T	Y	U	I	E	E	J	K	R	G	F	A	N	T	R
L	O	P	D	U	A	A	I	Z	A	H	F	P	U	Y	G	A	S	S	A	A	H	J	R	S	A	E
A	E	R	E	Y	R	X	O	T	E	A	D	O	S	A	U	A	Z	R	T	H	J	O	O	O	S	D
S	L	K	Z	H	A	T	R	A	R	N	S	I	D	D	E	D	O	F	G	U	P	Ñ	M	R	L	O
D	L	E	G	I	N	I	A	R	R	A	R	O	S	I	Z	T	R	U	Y	X	T	R	A	A	P	D
F	M	A	R	I	E	T	Z	A	Ñ	L	K	E	S	A	E	R	R	T	I	F	D	A	R	R	S	E
T	N	O	H	Y	L	A	I	O	I	N	J	Z	G	T	Z	A	G	H	K	U	L	T	T	R	A	I
H	B	L	J	U	A	R	I	F	L	O	R	E	A	R	O	P	E	R	O	I	J	T	I	A	U	I
I	H	K	I	T	M	I	J	U	L	E	N	E	G	O	I	K	O	E	T	X	E	A	N	I	J	J
J	Y	T	U	R	E	E	W	S	D	F	G	H	I	Ñ	A	K	I	A	U	Z	M	E	N	D	I	
K	Z	A	B	J	K	U	I	H	L	O	O	K	Y	T	R	E	W	M	N	N	I	P	Z	J	N	M

SOLUZIOAK

Roteta, Markel Odhizola, Ornatz Goenaga, Iraide Pellejero, Julene Gokoetxea, Amalur Rodriguez
 teta, Alvaro Martinez, Iñaki Auzmendi, Nahia Goenaga, Urtzi Sorraín, Lorea Ropero, Aritz Pellejero, Iñaki Txapar-
 tegi, Almar Altuna, Malen Sorraín, Izaro Iruretagoiena, Aratza Larruri, Oihana Fernandez, Xuhar
 Jone Gorostidi, Mikel Mendizabal, Olaia Rodriguez, Markel Sorraín, Naroa Iturriz, Oier Gokoetxea, Aiora Ro-



Herritarrekin solasaldian

Ikasturte honetan ere herriko hainbat adineko jenderengana joan gara beraien garai bateko bizimoduari buruz galderak egitera. Izan ere sinesten dugu altxor bat direla; jakitunak eta adituak; eta asko daukagula beraiengandik ikasteko

Ixabel eta Perikorekin elkartu ginenean “auzolana” eta herritarren arteko “elkar laguntzea”-ri buruz aritu ginen. Gai berari buruz elkarrizketatu genuen Leteberriko Gregorio ere. Beste zenbaitengana BASOari buruz hitz egitera joan ginen.

Hemen behean duzue egindako elkarrizketa horietako bat, Segundo-ri egindakoa da. BASOA eta BASOKO LANEI buruz egin genuen berarekin solasaldia. Justu bere urtebetetze egunean egin genion elkarrizketa.

Hona hemen kontatu zigunaren zati bat:

Zuk basoan eta baserrian egin duzu lan beti?

Bai gehienetan baserrian txikia nintzenean. bai gehienetan basoan eta baserrian egiten nuen lan.

Nolakoa da basoko lan hori?

Oso gogorra da basoko lana. segarekin belar txarrak kendu eta erortzen ziren orbelekin behientzako oheen antzekoak egin erosoago egoteko... erreza zen gaztainak bildu eta saldu egiten genituen arbola txarrak kendu

Basoa maite duzu?

Bai asko, nola ez dut ba maiteko? Eta nire aitak nik baino gehiago. Gainera nire aita arotza zen eta nire aitona ere bai.

Basotik egurrez gain zer jasotzen zenuten? Lanaz gain zer eman dizu basoak?

Gaztainak, ikatza, orbela, ... Orbela animaliei ohea egiteko erabiltzen zen, ez bait genuen lastorik.

Oraingo animaliak berdinak al zeuden basoan?

Gure garaian basoan erbiak ibiltzen ziren, orain ia ez da gelditzen. Basurdeak berriz orain askoz gehiago daude.

Gogoan al duzu garai hartako pasadizoren bat?

Basoan zuen txabolan bi kattagorri lagun nituen. Beti etortzen zitzaizkidan ingurura txabolara joaten nintze-

nean eta kasu egiten zidaten, “miau” antzeko soinu bat eginez. Norbait horretaz enteratu zen eta eskopetaz bi kattagorriak hil zituen. Pena handi eman zidan.

Beste behin eskopeta hartu eta ehizera joan nintzen aitari esan gabe baina aita enteratu egin zen. Aitak esan zidan adin egokia izan arte itxoiteko eta kasu egin nion aitari.

Batzuetan gertatzen zen basoan bidezidor batetik zindozazenean horko jabeak “lto” ematen zizula.

Segundok basoaz gain beste zenbait gairi buruz ere hitz egin zigun. Kontatu zigun ijitoek beldurra ematen ziotela, 7 urterekin hasi zela eskolara eta 14 urterekin bukatu, latinez ematen zela meza, mezetan laguntzegotik apai-zak bi pezeta ematen zizkiela... Segundok oraindik ere primeran esaten ditu elizako kontuak latinez, guk entzun genuen latinez nola hitz egiten duen!

Eskerrik asko

SEGUNDO

PERIKO eta IXABEL,

eta GREGORIO.



Herri ikastetxetik





Ongi etorriak eskolara!!!



Izadi, Adur eta Adei.



Datorren ikasturtean hiru ikasle berri izango ditugu ALKIZAKO ESKOLAN. Dagoeneko izan ditugu bisitan eta primeran moldatuko dira seguru. Gaur egun daukagun 10 umeko 2 urteko taldearekin bat egingo dute; eta beraz Haur Hezkuntza 2-3 urteko 13 ume izango ditugu elkarrekin.

Guztira 58 ikaslek osatuko dute ALKIZAKO ESKOLA datorren ikasturtean. Eraikuntza berritzeko aldarrikapenarekin gogor jarraitzen dugu eta luze gabe obraren itxaropena eman digute, ahoz bada ere. Ea oraingo honetan lortzen dugun denon artean ESKOLA DUIN BAT.



BI IKASLEK BUKATU DUTE LEHEN HEZKUNTZA!!

Aner AUZMENDI eta Anne ROPERO ikasleek bukatu dute LEHEN HEZKUNTZAko 6. maila. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza egitera ERNIOBEAra joango dira, baina beti izango dira ONGIETORRIAK Alkizako Eskola honetan.



*Gaurkoan hemen daukagu
lasai plantarekin horra
kritika ugari jaso du
azaldu delako ezkorra
itxura besterik ez da
bere jarrera gogorra
baina ezagutzen dugunok
dakigu dela jatorra
txikiekin jolasean
mantentzen da maitekorra
makinetan ta frontoian
jolasetako motorra
aprobetxatuko dugu
kitatzeko gure zorra
Aner zuk jaso ezazu
besarkada sentikorra*

*Bestea berriz dugu ai
oraintxe ze ondo nago
bat-batean egoerak
jartzen du urduriago
eskerrak malkoak baino
irribarrea nahiago
beti laguntzeko prestu
eskakeatzen arraro
eskolan saiatzen dena
dena ondo egiten klaro
antzerkizale bikaina
keinu ta hitzen esklabo
sariren bat jasoko du
berandu baino lehenago
hartzazu gaurkoan Anne
muxu bat baino gehiago*

*Malkoak atera dira
guztion begietara
hamabi urteko bizitzan
nahikoa kezka ta algara
argazki asko segidan
bat-batean beharbada
gurera etorri dira
eta eustea zaila da
sentimenduak azaldu
zaizkigu hona ta hara
tristuraz esango dugu
hementxe norbait falta da
baina Alkizako eskola
beti zuen tokia da
adiorik ez zuentzat
etorri maiz eskolara*



■ Inaki Irazabalbeitia

Gure piztiak Etxeko karraskariak

Korrika txikiak sabai aizunean oheratu ondorengo gau belan zaudenean. Kaka-arrastoak sukaldeko armairuan. Pentu-zakua zulatuta. Neurriak hartzeko garaia dela erabakitzen duzu. Sagutera armatu, pozoia jarri eta etxean nahi ez dituzun lau hankako gonbidatu horiekin bukatzeari ekiten diozu.

Kattagorria bezala karraskarien ordenako animaliak dira arratoia eta xagua. Ez horren sarmangarriak ordea! Etxeko gonbidatu izaten ditugu inbitatu ez baditugu ere. Nonahi eta noranahi gizakion bidaia lagun dira. Alabaina, zer dakigu beraien bizimoduari buruz.

Etxeko xagua (*Mus musculus*) mundua osoan bizi da. Bost azpiespezie onartzen zaizkio. Hernioko magal honetan bizi dena *Mus musculus domesticus* da. Sudur-puntatik isatsaren hasiera 7,5 – 10 cm bitarteko luzera du eta apenas ilerik duen isatsak 5 – 10 cm bitartekoa da. Pisua ere neurrikoa, 10 – 25 g. Isatsa korritzean balantza egiteko usatzen du eta, aldi berean, gorputzaren beroa xahutzeko ere baliatzen du. Altuera-jauzian ez du parekorik, 45 cm-ko jauziak egin ditzake eta.

Orojalea da. Ilunabarrean eta gauean ibiltzea gustukoa du eta 12 orduz egin dezake lo eguneko. Txoko epelak eta gordeak gogoko ditu habia egiteko. Bertan bizi da sagu-familia. Izugarri azkar ugaltzen dira. Emeak jaio eta sei asteren buruan ugaltzeko gai dira. Ernarduta izan eta 20 bat eguneko epean jaiotzen dira umeak, 6-8 aldiko batez bestean. Emeak 5 eta 10 umaldi bitartean izan dezake urte batean.

Azkar ugaltzen dira, bizi-esperantza laburra dutelako: urte bete inguru. Etsaiak ugari dituzte gizakiaz aparte: ontza bezalako hegazti harrapariak, erbinudea eta beste mustelido batzuk eta, bere familiako bat, arratoia.

Etxean barrabaskeriak egiten badizkigute ere saguak irudi kutuna du gizakion artean. Herri eslaviarretan saguren eguna ospatzen dute; Perez saguak saria ematen die Espainian hortza galdu duten umei eta zer esan Mr. Jinks katu zirika eta zirika bizi diren Dixie eta Pixiez! Gogoan izan, gainera, laborategiko saguak sekulako laguntza direla zien-

tzialariek biziaren sekretuak deskubritu ahal izan dezaten.

Gatozen orain beste gonbidatuarengana. Bi arratoi-klase bizi dira gure artean: arratoi arrunta (*Rattus norvegicus*) eta arratoi beltza (*Rattus rattus*). Oso antzekoak dira itxuraz eta jokamoldez gizakiarekin batera bizi eta ugaritu direlako munduan. Arratoi beltza arrunta baino txikiagoa izaten da eta ize-nak bestela badio ere ilaje marroia ere izan dezake. Arratoi arruntak 25 cmko luzera eta beste horrenbesteko isatsa izan dezake. Beltza ez da 18 cm baino handiagoa izaten.

Arratoi arrunta gizakiokin batera bizi da, hiriguneetan bereziki. Arratoi beltza nekazal inguruetan bizi da, uzten artean. Izan ere, eskalatzaille aparta da, arrunta ez den bezala, eta sastraka eta arboletan gora erraz igo ahal da fruituak jatera. Arratoi arrunta eskalatzeko oso trebea ez, baina zulogile fina da; igerilari polita gainera.

Bi arratoiok, xaguen moduan, orojaleak dira, baina arratoi arruntak elikagai-sorta handiagoa kontsumitzen du. Era berean, klima-baldintza gogorreko hobeto moldatzen zaie.

Arratoi beltzak lau hilabete behar ditu heldutasun sexualera iristeko. Denbora horren erdia behar du arratoi arruntak. Hilabeteren buruan izaten dituzte umeak; lehenak 6-8 umez erditzen da eta bigarrenak, 6 – 12. Biak hilean behin umeak egiteko aukera izango lukete, baina beltza 2-3 umaldi izaten ditu urteko eta arruntak 3-6. Hortaz, arratoi arruntaren ugalkortasun handiagoa, bizitzeko baldintza gogorrakoak pairatzeko abildadea eta jateko mizkinkeria txikiagoa izateak ekarri du, arratoi arruntak beltza nitxo ekologiko askotatik botatzea eta landa eremuetan bizitokia izatea bereziki.

Bi espeziok 3 urte bizi ahal dute, baina gutxi izaten dira urtea gaintzen duten aleak. Gizakion jazarpenak, harrapakariak eta arratsoien arteko borrokek % 95 hilkortasun-tasa ekartzen dute urtebeteren epean.

Xaguen kasuan bezala arratoi arruntak laborategietan ikerketa biologikoak eta psikologikoak egiteko usatzen dira. Arratoi horiek hazkuntza selektiboz hazitako arratoi albinoak izaten dira.



Arratoi beltza eskalatzaille trebea da eta arbolen eta zuhaizken adarretan erraz moldatzen da.



Xagua ezkurra jaten.



Arratoi beltzaren ebakortz zorrotzak.

Konpainia-animalia moduan ere hazten dira arratoi grisak. Britainia Handian XX. mendearen hasiera arte arratoiekin apustuetan baliatzen ziren. Ixtura batean hainbat arratoi sartzen ziren eta beren aurka foxterrier zakur bat xaxatzen zen. Zakurrak zenbat denboran hiltzen zituen arratoiak zen apustua. Hasiera batean kaleetan harrapatutako arratoiak erabiltzen ziren, baina laster apustuzaleak arratoiak hazten hasi ziren. Horrela, arratoi-arraza otzanagoak hazi zituzten egun konpainia-animalia moduan bizi direnak.

Beste batean, akaso, helduko diogu zelai-basoetan bizi diren bestelako karraskarien notizia emateari. Oraingoz adio!



Euskaldunok edozein gauzari buruz egiten omen dugu apustu. Britainiarrak ez zaizkigu atzean gelditzen! XX. mendearen hasiera arte 'rat-baiting' izeneko jokoa modan egon zen. Ixtura batean sartutako arratoiak akabatzeko foxterrier batek ea zenbat denbora behar zuen apustu egiten zen.



Arratoi arrunta oso ondo moldatzen zaie eguraldi-baldintza gogorrei. Kontinente guztian bizi da Antartidan izan ezik eta arratoi-mota nagusia da Europa eta ia Iparramerika osoan. Moldagarritasun horrek arratoi beltzari nagusitzea ekarri du.



■ Enrike Larrarte Arregi

Karramarroak ote gara?

euskaraz
bizi
nahi dut

Aurreko urteko alean, aldizkari honetan, hau irakurri nuen: "*Bada beste aldaketa bat asko kezkatzen nauena: euskara espazioak [Alkizan] galtzen doala. Hamar urtean erdarak euskara nola ordezkatzeko ari den begien aurrean ikusten ari gara.[...] Alkiza euskararen arnasgune izatetik, erdalduntzen ari da.[...] Azken 30 urteetan Euskal Herrian martxan jarri den hizkuntzaren normalizazio politika hankaz gora jartzen du Alkizan gertatzen ari denak. Halako esfortzuekin hainbeste gune erdaldun euskaldundu dira, eta berezko gune euskaldun bat erdalduntzen ari gara. Eta gakoa ez dago ez dakitenengan, gakoa jakin eta erabiltzen ez dugunongan dago.*" (Lorea Agirrek esana)

Erabat ados nago Lorea kezkatzen duen arazoarekin: euskara galtzen ari da, baina ez Alkizan bakarrik, Euskal Herri osoan, nahiz eta askok ez hala pentsa. Hala ere, arazo honen gakoa ez dut uste jakin eta erabiltzen ez dugunongan dagoenik. Arazoak, problemak, soluzio bidean jartzeko ongi planteatu behar dira hasiera-hasieratik, bestela huts egingo dugu, eta nire uste apalean arazoa ez dago euskara jakin eta erabiltzen ez dugunongan. Nik gauzak nola ikusten ditudan, zirriborroan behintzat —ezin bainaiz luzatu—, azaltzen ahaleginduko naiz orain.

Euskararen galeraren bene-benetako gakoa (soziolinguistika matematikoak hala dio) erdaldun elebarkarrendik datorkigu, erdaldunek eguneroko bizitzan euskaldunok erdarara makurtzen gaituztelako. Bederatzi lagunen artean euskaraz ez dakien bakar bat baldin ba-

dago denok erdarara joko dugu elebarkar horrek behartuta; eta honen soluzioa ez dago gure esku, ez dago nire esku, ez dago zure esku, gizartearen norabidea markatzen duten agintarien esku dago. Hizkuntz politikan dago gakoa. Zergatik dakigu erdara ia euskaldun guztiok? Zergatik ez du euskararen beharrik sentitzen erdaldun batek? Zergatik...? Zeure buruari galdetu, irakurle.

Bide onetik al goaz? Ez dut uste. Gure agintariek ez dute hau ikusi edo ez dute ikusi nahi.

Krutwigek idatzi zuen: "*Nire izua izugarrikoa izan zen jakin nuenean Lehendakaria bera, Leizaola jauna, Euskal Herriaren etsaien debaldeko kolaboratzaile bat besterik ez zela. Nik, nire ezjakintasunean, nazionalista zelakoan, berri izan nuen Leizaolak zituen umeetatik inortxo ere ez zela ezaugarri nazional gorenaren [euskararen] jabe, jaun hau euskalduna izanik [...], eta baita bere emaztea ere... eta, gainera, bere burua euskal nazionalistatzat jotzen zuena izanik. Pentsatu nuen erdialdeko Europan gezurrezko nazionalista batek, aberriaren kontra horrelako bekatua egingo balu, fusilatua izatea meretziko lukeela.*"

Txillardegik kontatu zuen garai batean atzerrian zegoen Eusko Jaurlaritzako buruzagi baten euskararekiko axolagabekeria. Euskararen etorkizuna piperrik ere ez zitziola inporta adierazteko, hau esan omen zion: "*Qué más da*



decir 'etxe' o decir 'casa'». Garrantzizkoa independentzia lortzea zela, industria eta ekonomia sendoak edukitzea, eta hori edozein hizkuntzatan lor zitekeela.

Garai horietatik hona, gauza asko aldatu dira. Urte asko dira Franco hil zela eta halako nekeekin hainbeste gune erdaldun euskaldundu badira ere, oraindik gaztelania da nagusi. Eusko Legebiltzarrean bertan (*Berriak* 2013ko ekaineko osoko bilkuretako azterketa egin zuen), hiztaldien % 77 gaztelaniaz egin zuten parlamentariak. Gainera, euskararen erabileraren portzentaje orokorra EH Bilduko ordezkariak handitzen zuten (% 75); izan ere, euskaraz erdaraz baino gehiago egiten zuen talde bakarra baita. PPK, PSE-EEk eta UPDk ia inoiz ez dute euskaraz egiten, eta EAJk, gutxi (% 25). Hemendik bi ondorio atera daitezke gutxienez. Bat: politikoez ez diotela euskarari behar duen seriotasunarekin heldu; eta bi: politikoen alderdi guztiak ez direla berdinak (nahiz eta ideia hau oso zabaldurik egon).

Bi edo hiru hizkuntza ikasi behar omen ditugu euskaldunok (agintariek hala diote), eta hizkuntza espainola ere gurea omen da. Joan zitzaigun Gotzon Garatek hau utzi zigun idatzita: Herri batek ezin omen du bi hizkuntzaz ongi hitz egin. Hori amets hutsa dela. Ez dela horrelako herriarik izan. Bi hizkuntzaz mintzo ziren herrietan bata besteari nagusitu egin zaiola eta azpikoa galdu. "Ni lau kontinen-



teetan ibilia naiz. Ez dut inon bi hizkuntzez mintzo den herririk ikusi. Batzuek Suitza ipintzen dute elebitasunaren eredu. Ni bi urtez bizi izan nintzen hantxe. Eta ez dago holakorik. Suitzan frantsesez mintzo direnetarik oso gutxi dakite alemanez. Eta alemanez mintzo diren gehienek ez dakite frantsesez edo italianoz. Jende arruntak bertako euskalkia bakarrik daki. Ziur egon gaitzke: Euskal Herrian euskara nagusituko da ala erdara. Biek elkarren ondoan irautea ezinezkoa da." Hizkuntzak ikas-



tea ongi dago baina hizkuntza nirea, gurea, bakarra da: euskara. Bi hizkuntzaz mintzo diren herrietan bata besteari nagusitzen zaio eta azpikoa galdu egiten da.

Ezin dira gauzak argiago esan: Euskal Herrian euskara nagusituko da ala erdara. Biek elkarren ondoan irautea ezinezkoa da. Zer egin dute, ordea, gure eredu izan beharko luketen agintariek? Zer egin da euskaldun elebarkarrek? Hemengo hizkuntz politikak euskaldun elebarkarrez aspaldi ahaztu ziren. Inkesten arabera, 1993 urte aldera, euskaldun elebarkarren kopurua % 1 ekoa zen, 20.000 hiztun inguru. Bost urte geroago erdira jaitsia zegoen euskaldun elebarkarren kopurua, eta azken urteetako zifretan hutsaren hurrena dira. Oraindik, ordea, ez dira gutxi erdaraz nekez moldatzen direnak eta, nire uste apalean, jende honi esker mantendu da euskara toki askotan; hauek desagertzen direnean izango dira komeriak.

Eta hedabideekin zer gertatzen da? Ez da normala, Franco hil eta berrogei urtera, igande arratsalde batean irratia entzun nahi izatea, eta euskarazko hitzik ezin entzun izana, euskaraz egiten duten irrati pixarrak musika ematen ari direlako. Ez da normala ETBko ikusle guztiei kirola sudurretatik ere sartu behar izana, emakumeak ere futbol zaleak balira bezala. Ez da normala, aurten bertan, euskara hutsez idazten den egunkari bakarrari diru murrizketak egitea. Ez da normala... Noiz jarri behar da euskara erdigunean? Agintariak estutu beharrean gaude. Euskararen zama gure bizkar gainean utzi dute.

Samaniego arabarraren karramarroen alegiak dioena gertatzen zaigu. Honela dio: Karramarroak, egun batean, herrian arazo bat zeukatela konturatu ziren. Herriko zaharrenak eta jakintsuenak bildu, eta honela hitz egin omen zuen karramarroen argienak: gainontzeko mundu guztiak ez bezala, guk pausoak aurrera eman beharrean atzeraka ematen ditugu. Lotsagarri eta barregarri gertzen ari gara eta on izango litzateke ohitura txar hau al-



datzea. Argienak esandakoa arrazoizkoa zela ikusirik, karramarroek aho batez erabaki hau hartu zuten: hemendik aurrera gure karramarro txiki guztiei aurreraka ibiltzen irakatsi behar diegu. Maisu-maistrekin hitz egin, eta hauek ahaleginak egingo zituztela, bai, eta buru-belarri saiatu ziren karramarro txikiei aurreraka ibiltzen irakasten. Eta baita karramarrotxoek laster ikasi ere. Hura zen poza, hura! Zahar guztiak harro zeuden haur txiki haiek hain lirain eta eroso pausoak ematen ikusirik. Baina haurrak koskortzen hasi zirenean, konturatu ziren karramarro heldu guztiak atzeraka ibiltzen zirela, eta, badakizue nolakoak diren umeak: zer ikusi, hura ikasi. Eta berriro atzeraka ibiltzen hasi ziren lehengoa ahaztuta.

Badirudi haxe gertatzen ari dela, beste leku askotan bezala, Alkizan ere: haurrak ikastolara bidali bai, baina bitartean gurasoak beren artean erdaraz jotafuego. Euskara maitatu bai, baina erdaraz hitz goxoak esanez kulunkatzen dugu sehaskan euskara. Kontuz! Ez gaitezen pasa –mesedez!– gure maitasunean.



**Euskaldun izatea
ez baita euskaraz jakitea soilik,
euskalduna izatea
euskaraz bizitzea da.**



■ Imanol Lizardi

Miren Fernandez

Erretoretzeko kantaria



Udaleku irekitakoekin, Kultur etxean

Egunero etortzen da urrunetik. Egunero sartzen da berderatziak aldera gure herriko plazan, igel forma duen bere auto zurian, erdi-presaka, barnetegira, bere lanera berandu ez heltzearren. Egunero ikus dezakegu goiz edo arratsalde, zigarroa erretzen txokoren batean, ikasleengandik aparte. Egunero dugu Miren gurean, eta gehienetan irribarrez. Urtebete ere ez darama Alkizan, eta dagoeneko plaza inguruan maiz ibiltzen garenok izan dugu parada berarekin noiz edo noiz hitzen bat gurutzatzeko.

“Sinpatika dun Erretoretxera aurten etorritako kantante maistra hori” entzun genuen behin bi herritarren arteko elkarrizketa batean. “Hi, kotxe politta zeukak festetan kantatu zian barnetegiko andre horrek” esan zuen beste behin eskolara bidean zihoan mutikoxkor batek.

Izan ere, gure artean ia lanean hasi aurretik, iazko jaietan, kantaldi ederra eskaini zigun herritarroi Miren Fernandezek. Egun hartan, ohiko saioetan berarekin pianoa jotzen diharduen Antton Sarasuak ezin izan zuen etorri, eta bakar-bakarrik, pianoa ere berak joaz, bikain moldatu zen, bertaratutakoak aho zabalik utziz.

Azpeitiarra da jaiotzez. Hautzaroa Valladoliden eman zuen, aita hangoa baita, baina gaztetxoa zela Zarautzera etorri zen familia osoa bizitzera, eta bertan bizi izan da oraintsu arte. Bizkaitar gizonezko bat dela medio, azken urte hauetan Durangon bizi da, eta bai, handik etortzen da egunero gurera, berrehun kilometro inguru eginez.

Bigarren abizena Francesena du. Francesena abizena, jatorriz baztandarra bada ere, Urola bailara osoan, erabat lotua dago musika munduarekin. Besteak beste Mirenen osaba batena da Azpeitia herriko ereserki nagusizat har daitekeena, hau da, San Sebastian egunaren bezperan jaietako hasiera ematen dien musika doinua. Ama, Arantxak betidanik abestu izan du, eta diska grabatzera iritsi zen beste bi lagunekin gaztea zenean Unai hirukoarekin. Xabier Saldias, lehengusua du, eta Alberto eta Jose Luis Francesena, Egan talde mitikoaren beste bi sortzaileak, osabak.



Beraz, izan du Mirenek norengandik jaso musikarako zaletasuna. Txiki-txikitatik hasi zen musika ikasketak egiten, eta hogei urte inguru zituenean ikusi ahal izan genuen lehendabiziko aldiz abesten EITB-n. Madrilen ikasturte bat eman zuen musika ezagutzak areagutzen.

Gauza hauek guztien inguruan, gure herriari buruz pentsatzen duenaz, eta berak kontatu nahi digun gainerako edozertaz ere hitz egiteko, berarengana jo dugu. Hara zer kontatu digun

Beraz Miren, lehenik eta behin esaguzu, egia al da goian aipatu duguna?

Bai, musikari buruz jarri duzuna behintzat bai, Gainerakoaz agian, beste norbaitek hitz egin beharko luke. Txikitandik izan dut bizipen intensoa musikarekin. Kontuan hartu amaren sabelean nengoela, hark egiten zituen entsaio guztiak bertatik bertara entzuten nituela. Are gehiago, hamabost egun nituela Bartzelonara joan behar izan zuen grabaketa batzuk egitera Juan Carlos Calderonekin, eta Maruxa izeneko bere lagun batekin geratu nintzen. Aita, berriz, hogei urterekin Azpeitira etorri zen, eta nahiz eta familia musikaria izan ez, francesenatarrekin topo egin zuenean, ez zuen beste aukerarik izan, hau da, euskaldundu eta musikazaletu.

Berak ere abesten al du?

Bai, amarekin betidanik. Berez, horrela ezagutu zuten elkar. Ama aitaren gitarra irakaslea zen, eta nonbait gitarra akordeen soinupean maitemindu ziren. Argazki asko ditut haurra nintzela, ni soziedadean euren magalean lo, eta beraiek kantu kantari gitarrarekin.

Eta musika ikasketekin noiz hasi zinen?

Sei urte nituela Valladoliden. Orduan han bizi ginen, eta amonak eramaten ninduen hiriburuko musika kontserbatorioko taller batzuetara. Amona dezentetan engainatzen nuen.

Engainatu, nola?

Nahiago izaten nuen telebistan Espinete ikusi, hara joan baino. Berehala konbentzitzen nuen, ama ez bezala. Ama gogorragoa zen eta ez zidan nahi nuen dena egiten uzten.

Eta zein instrumentu ikasi zenuen bertan?

Taller horretan esperimintatzen ibiltzen ginen perkusio tresnekin. Jolasean ibiltzen ginen gehienbat. Gero Zarautzen bizi ginela, solfeoarekin serioago hasitakoan, pianoa aukeratu nuen. Hamar bat urte izango nituen orduan. Ordurako Zarautz-txiki izeneko bertako koruan izena emana nuen. Urte mordo bat egin nituen bertan, hemezortzi urterekin Zarautz-gazte abesbatzaren zuzendaritza hartu nuen arte. Urte horietan guztietan Donostiako kontserba-

Barnetegian, ikasleekin. ▽



torioan pianoko erdi mailako gradoa bukatu nuen, eta Bilbon magisteritza musikala egiten hasi nintzen, EITBko nire lehen lanarekin tartekatuz

Orduan, zenbat urterekin hasi zinen EITB-n kantuan?

Hogei bat urte izango nituen. Nire lehen agerpena "Aire-aire" programan izan zen. Jose Mari Iriondo eta Ainhoa Goikoetxea ziren aurkezleak. Ondoren "Izar bila" etorri zen. Esango nuke hori izan zela ondorego urteetan EITB-n, "Sorginen laratza" saioan eman nituen urte mordoaren abiapuntua.

Nik gogoratzen dut baita "Oh Happy Day" ere. Zer izan zen hori?

Ufff! Horrek Madrilen harrapatu ninduen. Casting bat egiten ari nintzen musikal baterako, teatro batean, eta bat-batean EITBtik deitu zidaten. Joan-etorrian ibiltzen nintzen grabaketa horiek egin ahal izateko, ostiralero. Oso esperientzi ona izan zen niretzat. Lan talde bikaina topatu nuen bertan, eta primeran ibili nintzen.

Eta diskak eta zuzeneko kontzertuak noiz heldu ziren?

Sorginen laratzen ari nintzela aukera sortu zitzaidan hainbat herritako jaietan abesteko, baina ez nuen talderik. Orduan talde bat osatu genuen euskal kanta ezagunetan oinarrituta. Talde honek Prefosta zuen izena.

Prefosta?, bai izen arraroa

Xabier Euzkitzek proposatutakoa da. Ipar aldeko hitz bat da, eta han "agian, beharbada" esan nahi du. Garai horretan, musika sortzen hasi nintzen, eta nire lehen abestiak orduan osatu nituen. Aurikularrak jantzi, eta grabaketak egiten orduak ematen nituen. Horretan ari nintzela, aukera izan nuen Asier Serrano, Andoni Egaña, Xabier Euzkitze eta abar ezagutzeko. Horrela, nire lehen diska



◁ Antton Sarasuarekin Portugalen, Batalhako kontzertuaren aurretik.

▽ Tadasak taldearekin Biarritzeko grabaketa estudioan.



iritsi zen, “Laztanten nauen eskua” izenekoa. Bertako abesti gehienak euren hitzekin eta nire musikarekin osatutakoak dira, baina nire bizipenetan oinarritutakoak ziren ia guztiak. Nik nire kontuak kontatzen nizkien eta beraiek abestien hitzak idazten zizkidaten.

Badakit Antton Sarasua ere garrantzitsua izan dela zure bizitza musikalean.

Zalantzarik gabe. Berarekin hasi nintzen Urtxintxa taldeak argitaratu zuen Euskal jolasen bilduma kolekzioan ahotso sartzen. Orduan hamazazpi urte nituen, beraz atera kontuak noiztik egin dugun lan elkarrekin. Orduz geroztik, ezinbesteko laguna izan dut nire iblbidetxo osoan. Baita gaur egun ere, Tadasak-en, nahiz eta Alkizan egin nuen kantaldian ezin izan zuen etorri, eta ez zenuten izan hemen ezagutzeko aukera. Musikari bikaina da, arimaz eta formakuntzaz, eta zer esanik ez, pertsona bezala.

Tadasak taldea aipatu duzu. Hori al da zure gaur egungo taldea?

Bai. “Laztanten nauen eskua” diskaren ondoren, Anttonnek eta biok Elkar disketearekin “Lo lo maite” lo-kanten bilduma argitaratu genuen. Eta duela urte eta erdi, Tadasak proiektua iritsi zitzaigun eskuetara. Ganbara taldeko hainbat kiderekin elkar hartuta, Ternuara joan ziren euskal bale gizonen inguruko azterketa lan bat egin, eta Eusko Jaurilaritzaren babesarekin, “Bide luzea Ternuarat” diska kaleratu genuen joan den azaroan, Durangoko azokarako.

Izan al du arrakastarik?

Inoiz ez dakizu proiektu batean sartzen zarenean, zer nolako oihartzuna izango duen. Batzutan, energia handia ja-

rri arren, ez da ateratzen espero moduan. Kasu honetan, berriz, espero gabe iritsi zen proiektua, eta espero gabe ere iritsi da fruitua. Gu oso pozik gaude emaitzarekin eta kontzertu asko ematen ari gara, horietatik asko Euskal herritik kanpo. Niretzat hemendik kanpo abestea berria da, eta aukera dezente sortzen ari zaigu horretarako.

Eta Alkizara, lanera, nola iritsi zinen?

Kasualidadez. Bizkaiara eskatu nuen destinoa, eta ezer ere eman ez zidatela ikusita, Hondarribiko eskolan musika irakasle gisa nengoela, Euskal Giroitze Barnetegien deialdiaren berri izan nuen. Lagunak nituen barnetegieta lanean jardundakoak, eta oso erreferentzi onak eman zizkidaten. Ez nuen zalantzarik egin, eta nire burua aurkeztu nuen. Plaza atera nuen eta hementxe nago zurekin solasean. Ja, ja, ja, ja....

Eta zer iruditzen zaizu gure herria?

Xarma handiko parajea da, lasaia, ederra, bertan bizitzeko modukoa. Nik uste dut etekin handiagoa atera diezaioketuzela herriari.

Etekin handiagoa? Zertan?

Uste dut jende askok ez duela herri zoragarri hau ezagutzen. Eta aukera asko dituen herria da, bertan egun zoragarri bat emateko. Ibilbideak apartak dira, inguruko basoak ikaragarriak, eta ezagutu ahal izan dudanean neurrian jendea ere oso atsegina eta irekia.

Mila esker Miren. Badakigu etxetik urrun samar zaudela, baina guk urteetan nahiko zintuztegun gurean, tarteka abestiren bat entzun, zurekin solasaldian disfrutatu eta zure begirada zintzoarekin gurea gurutzatu. A! eta hori bai. Ez galdu irribarrerik.



■ Ixiar Irulegi

Pentsatzea, sentitzea, libre, denon eskubide

Aurtengo hitza, erantzun batzuetan nabaria den bezala, nahiko berria dugu. Hitza bera dugu berria, zeren zein baserritarrek ez daki lainoak, ilar-giak...beren barazkietan duen eragina edo lotura? Elkarbizitzan, elkarrizketetan... bi jakinduria mota hauek: liburuetakoa eta biziutakoa, ikusi, elkar baloratu eta elkarrekin aberastuz joatea beharrezkoa dugu. Gogoratu, bata bestearena txorakeriatzat jotzen badugu, jakinduria mota bat galtzen ari gara. Gure itxitasunak mugatu egiten gaituela.

Bizikidetzarako ere, ekosistema hitzaren barruan azaltzen den "sistema" hitzaren edukia barnerrazten jarraitzea beharrezkoa dugu, bakoitzak bere arduraz jabetu eta erantzukizunez jokatzeko.

Sistemak, funtsean lotura-eragina esan nahi du, edozein sistemaren barruko elementuak ezinbesteko erlazioan daudela, bata besteari eragiten diola. Elementuren bat aldatuz edo desagertuz gero, beste guztiak hunkituta gelditzen direla.

Pentsamolde bat ere bada. Harremanetarako guztiz garrantzitsua. Ohituta gaude edozein arazoan aurrean errudun bat, normalean besteengan, edo arrazoi bat bakarra bilatzen. Ahaztuz, partaide guztiek dutela bere ikuspegia, kosta egiten zaigula besteen lekuan jartzen. Gainera, ez dagoela errurik, baizik eta guztien harremanen ondorioz, denon artean konpondu beharreko egoera bat sortu dela. Bakoitzak berea landuz, denei laguntzen dietela eta denei lagunduz norbera osatzen dela.

Mila esker aurtan ere erantzun duten guztiei eta ANIMO datorren urteko hitza kanpotarrak izango da eta.



Hitza: Ekosistema


GALDERAK

1. Hitz honek zer dakarkizu burura?
2. Zein sentimendu esnatzen dizu?
3. Zer ekintzetara bultzatzen zaitu?



JONE GOROSTIDI
(11 urte)

1. Ekosistema hitzak natura, animaliak, landareak... dakarkit burura.
Era berean tristura sortzen dit, jendeak plastikoak eta zenbait zabor bertara botatzen dituztelako.
2. Baina berez poza senti arazten dit. Errekaren soinua, txorien kantuak ... aditzean lasaitu egiten naiz. Bai, hauek guztiak asko lasaitzen naute.
3. Ondorengo ekintzetara bultzatzen nau: pasiatzera joatea, inbestigatzera, toki berriak eta gauza gehiago ikastera. Bizidun interesgarriak egoten dira.
"Asko maite dut mendia"



ANER AUZMENDI
(12 urte)

1. Ekosistema hitzak paisai politik dakarkit burura.
2. Ez dit batere sentimendurik esnatzen.
3. Animaliak harrapatzera, mendi buelta egitera... bultzatzen nau.

**ITSASO ARANZABE (26 urte)**

1. Ekosistema hitzak gure egunerokotasunean inguruzten gaituen natura, paisaia, animalia eta gizakien sistema dakarzkite burura.

2. Lasaitasuna, edertasuna eta maitasuna dira esnatzen diren sentimenduak.

Lasaitasuna naturak eta paisaiak transmititzen dituzte. Edertasuna, ederra delako daukagun ingurunea eta maitasuna edo errespetua da sorrarazten didan beste sentimendu bat.

3. Egunerokotasunean ahal dudana erabiltzeko, inguruneaz, paisaiak eta animaliekin gozatzeko bultzatzen naute. Balkoira irten eta aurrean dudana paisaiak gozatzeko aukera izatea niretzat opari bat da.

MARIA IRURETAGOiena (41 urte)

1. Ekosistema hitzak mundua eta ingurunea dakarzkite burura.

2. Bizitzeko gogoak esnatzen dit eta inguruko gizaki eta landareekin harremanak nahia sortzen dit.

3. Lanera, ehizara, arrantzara eta baratzean lan egitera bultzatzen nau.

76 urteko AMONA BAT

- Zer da hori?

PELLO JOXE ARANBURU

1. Ekosistema hitzaren sakoneko esanahi zientifikoetan sartu aurretik eta herri aldizkari irakurlekoa kontuan izanik, nire burura hauxe datorkit: Alkizan umetatik ikusi eta bizi izan dudana atlantiko paisaia, neguan eta udaberri giro euritsu, heze, busti eta hotza; uda eta udazkenean, berriz, epel, lehor, eguzkitsua eta sargori. Paisai hori baso epel eta hosto galkorrezko klimaren fruitua da, ingurumenaren baldintzek posible egiten dute landare eta animalien espezie ugari bizirik iraun eta elikatzea.

Gaur, paisai horretan basoa, otea, txilarra, sasia, zuhaixkak ugaltzen ari dira, soroak murriztu edo belaze bilakatuz, eta belazeak zikinduz. Lehen, nire haurtzarora belaze guztiak segaz ebakitzen ziren, gutxienez urtean behin; halaber, etxe inguruko baso guztiak segatu eta inaurkina erruz biltzen zen, zuhaitzi oro garbi mantenduz. Egun, larre-behi, behor eta ardi zintzariek ordezkatu dute segaren arraz hotza.

Orain artean, lurreko ekosistemaren eta Alkiza nire herriaren alderdi bat soilik deskribatu dut, ekosistema hitzak, ordea, baditu elementu gehiago. Alkizan ez dugu itsaso-ekosistemarik, ezta ere ibaia, lakua edo zingirarik, baina bai bi erreka (Arana eta Arraia, Oriaren ibai-adarrak), lurpeko ura eta akuiferoak, hau da, ur gezako ekosistema oparoa. Historian zehar, nekazaritzan eta abeltzaintzan ura derrigorrezko elementu bat izan da, gaur ere bai. Alkizako lurpeko urek eta akuiferoek alkizarrak ez-ezik zizurkildarrak ere hornitzen dituzte. Beste alde batetik, ur-hornikuntza publikoaz gainera, badira hornikuntza pribatuak etxe batzuetan. Esandako guztiak Alkizako ekosistema berezi eta esanguratsua egiten du.

2. Ekosistemak, naturak emaniko opariak dira, ez dituzte hautatu, gurasoek sortu ninduten hemen, horretan nik ez dut meritu eta parterik. Alkizako ekosistema, klima, paisaia edo natura esker onez onartu, errespetatu eta mantentzea dagokit, ahal dudana neurrian. Herri baten bilakaera, herritarren esku dago, ordea nagusiki.

3. Kanpoan jaio eta mila arrazoiengatik Alkizara etorri zareten guztiok antzeko zerbaitekin dagokizue, beraz, bertako eta kanpoko eskuetan dago Alkizaren etorkizuna. Ni ez naiz herrian bizi, baina nirekin kontatu, hori oinarri jartzeko dut.

Nirekin kontatu Alkizako edozein ekintzetarako.

Nirekin kontatu ekintza kulturaletarako, aholku lanetarako.

Nirekin kontatu OILATEGITIK aldizkaria aurrera ateratzeko.

Nirekin ez kontatu, ordea, ez dagokit eta, herriko arazo politiko eta teknikoak konpontzeko. Hori guztia, Alkizako egoiliarrei dagokizue, herriko seme edo bertakotutakoei.

81 urteko GIZON BAT

Horrelakorik aditu ere egin al dugu ba! Gure eskolak zein ondorio ekar dezakeen ere...

82 urteko AITONA BAT

Ez zait ezer bururatzen, ez dakit hitz horrek zer esanahi duen



■ Ainhoa Jauregi Otaño, biologoa

Mendiolako Pago Txikiren *senide suntsitua eta ahaztua*



Etxabe Txikiko Joxe abereei belarra botatzen. Atzean Etxabe Txiki baserria.

© Ainhoa Jauregi.



Mendiola inguruko paisaia.
Etxabe Txikiko Joxe.
Etxabe Txikiko abereak belarra jaten



©Ainhoa Jauregi.

Aurreko batean, aspaldi Mendiola aldean izan ez nintzela eta hara joatea erabaki nuen. Zangoak luzatuz aurrera nindoala, han ikusi nituen Etxabe Txiki baserriko behi eta txekorrak. Abereak gustura ari ziren belar gozoa bazkatzten, Etxabe Txikiko Miel Marik sardearen laguntzaz askara botatzen ziena. Une batez, liluraturik gelditu nintzen inguruan nuen guztiari so eginez. Berriro bideari ekin nion sorginduriko paisaiari begirik kendu gabe.





Pago Txiki pagoa.

© Ainhoa Jauregi.



Pago Txiki pagoaren enbor eta adarrak. Atzean Ikiliko alertze saila (*Etxaungo gahabana*), garai batean han zegoen Pago Txikiren senidea.

© Ainhoa Jauregi.

Halako batean, han aurrean, Alkizan hain entzuna den "Pago Txiki" pagoa zegoela ohartu nintzen. Mendiolako mendixkaren iparraldeko magal-zelaiaren ertz batean, bidearen alboan, zegoen eta dago, bakarti, pago handi eta lerdan hori –"Pago Txiki" ezizenez ezagutzen dugun arren, egun, ez du ezer txikitik–. Arratsalde fresko hartan, ipar haizeak zituen zuhaitz maitearen adar eta hostoak harrotzen.

Pagoarengana hurbildu eta betiko moduan bere enbor-azal zimurtua nire eskuekin ukitu nuen; nire barnean ba-kea sentitu nuen. Ordea, aldi berean, atsekabez, nire pentsamenduetan, zera galdetu nion zuhaitzari: "Non da Ikili baserriko alertze sailan (*Etxaungo gahamana*) alboan, Mendiolako bidearen ondoan zegoen eta zure senidea zen pago handi hura? Non da zure senide hura Pago Txiki maitea? Zu bezain garaia eta lerdana zen. Zure senidea handia bazen ere, egun, ez da lurrazalean ageri; baina bere sustraiak lurpean daude hilik. Zer gertatu zitzaion? Bai, badakit; haize ufada ikaragarri batek zuhaitzaren adarrak handienak lurrera erauntsi zituen, pagoa suntsi-tuz –adar batekin geratu zen zutik enbor zauritua–. Ondoren, gizakiak adarra eta enborra moztu zizkion, pago handiaren sustraiak betirako lurpean ahantziaz".

Hainbat alditan entzun izan diot jendeari haizebolada handiak beti izan direla, mundua mundu zenetik. Bai, eta egia da hori; baina ez egungo maiztasun eta indarra-ekin. Horretan, gizakiok eragin zuzena dugu. Gure eko-nomia-jarduera jasanezinarekin ingurumenari kalte la-riak eragin dizkiogu eta gainera, horretan dihardugu. Beraz, Pago Txikiren senidea suntsitu zuen haize ufada ikaragarri hori guk, gizakiok, eragiten ari garen klima al-daketaren ondorioetako bat da.

Ekonomialari klasikoek hitzetan, ekonomiak etengabeko hazkundean murgildu behar du, horrek ekarriko baitio gi-zarteari oparotasuna, zoriona, bizi-kalitate hobea...

Horrela, Mendebaldeko herrialdeetan bizi garenon eko-nomiak kontsumismo mugagabearen gurril zoroan mur-gildu gaitu. Eta horretan dihardugu buru-belarri, kontsu-mitu eta kontsumitu, amestu izan ditugun oparotasun eta zoriontasun perfektuaren bila.

Aurrekoarekin jarraituz, egungo gizartearen oparotasuna ondasun materialekin loturik dago –badirudi gizartea-ren parte izateko beharrezko ditugula ondasun material ugari edukitzea; hala nola: merkatuan azkena atera den mugikorren jabe izatea; aldiro-aldiro arropa berriak erostea garaian garaiko modari jarraitzeko; etxeko zenbait gelatan plasma-telebistak edukitzea, nahi dugunean te-lebista ikusteko...



Beraz, garbi ikusten da objektu materialek guretzat psikologikoki duten garrantzia, horien bitartez zuzentzen baikara gizartean besteengana; ditugun gauzen bitartez adierazten baitiegu besteei ekonomikoki zein mailatakoak (status) garen –ondorioz, orduan eta ondasun material berri eta hobe gehiago, ustez, orduan eta "abertasagoak" gara–.


Gainera, aurrekoa gutxi balitz, ez dira hamarkada asko, Ekialdeko herrialdeak (Txina, India...) ere etengabeko hazkundearen oinarrituriko ekonomia eredutzat hartu dutela.

Ekonomia-hazkundeak Lur planetak dituen baliabide naturalak (ura, erregai fosilak, lurra, mineralak, egurra...) agortezinak balira bezala erabilarazten ditu. Ondorioz, gure ingurua etengabe eraldatzen ari gara, bertan bizi diren izaki bizidunenganako –gu barne– ondorio larrietan erreparatu gabe. Gaurkoan, ondorio horietako batzuk azpimarratu nahi nituzke:

- **Milaka eta milaka animalia eta landare espezieen desagertzea.** Edward O. Wilson entomologo entzutetsuaren esanetan urtero 30.000 espezie desagertzen ari dira betirako. Hori guztion kalterako da.
- **Mundu osoko klima aldatzen eta ozeanoak azidifikatzen ari gara.** Mundu osoan erregai fosilen erabilpena ikaragarria da, geroz eta zementu gehiago ekoizten da... eta guzti horrek airera gero eta dioxido karboniko (CO₂) gehiago aireratzea dakar (ikusitako taula eta grafikoa).

XVI.mendea	80 ppm* CO ₂
1830. hamarkada (Lehen Iraultza Industrialaren amaieran).....	280 ppm CO ₂
1958an	318 ppm CO ₂
Gaur egun.....	400 ppm CO ₂

* ppm unitatearen esanahia: XVI. mendeko Alkizarrek arnasten zuten aireak milioi bat molekuletatik, 80 molekula CO₂-arenak ziren.



© Ainhoa Jauregi.

Jakina den bezala, CO₂ gasak negutegi-efektua eragiten du. Horrek, atmosfera berotzea, itsasmailaren igoera (Kostako herrien kalterako: Donostia, Zarautz, Getaria...), itsasoko uren berotzea dakar; azkenik, munduko klima aldatuz.

Ozeanoek atmosferako CO₂ kantitatea erregulatzen dutela (baso eta oihanetako zuhaitzek egiten duten antzera). Horretarako, ozeanoek airean dagoen CO₂-a xurgatzen dute, esponja handi baten moduan, aireko CO₂ kopurua orekatuz. CO₂-a atmosferatik ozeanoetako uretara pasatzen denean atmosferako CO₂-ak ozeanoetako urarekin erreazionatzen du **azido karbonikoa (H₂CO₃)** sortuz). Horrexegatik, egun airean dagoen CO₂ kopurua 400 ppm-ekoa denez (oso kopuru handia), gero eta azido karbonikogehiago sortzen ari da itsaso eta ozeanoetan bertako urak azidoagoak bilakatuz, bertako bizidunen kalterako, eta noski, gure kalterako.

- **Gero eta kutsatuagoa dago ingurumena.** Gure ekonomia-jarduerak objektu materialen zaharkitzea bultzatzen du; hau da, objektu materialen bizirautzea murriztea. Horrela, etengabean, objektuak erosi eta bota, erosi eta bota aritzen gara; gero eta hondakin eta zabor gehiago sortuz.

Gainera, arazo horri nolabaiteko irtenbidea aurkitu nahian, zenbait agintari eta politikariek erraustegiak eraiki asmoz dabilta, oraindik arazoa gehiago handituz.

- Erraustegietan zaborrak errauts bilakatzen dira eta errauts horretan gai toxikoak egoten dira. Ondorioz, errauts hori zabortegi berezi batzuetara eramane beharra dago.
- Erraustegietan zaborrak erretzean, gas toxikoak sortzen dira eta gaz hauek kanpora isuri aurretik tratatuak izan arren, zenbait substantzi edo gaiak kanpora isurtzen dira. hala nola: **dioxina** (minbizi sortzen du), **nitrogeno oxidoak** (euri azidoa sortzen du), **azufre dioxidoa** (begiak, sudur-zuloak eta eztarria narritatzen ditu), **monoxido karbonikoa** (burukomina, botagurea... eragiten ditu)...



Errekalde Baserriaren inguruan dauden zaborrontzien egoera tamalgarria.

© Ainhoa Jauregi.

Aipatu beharra dago, oraindik zenbait jenderi ez zaiola asko axola hondakinak ondo birziklatzea; ez baitute aintzat hartzen zein kaltegarri izan daitekeen, guztiontzat, hondakin eta zaborrak ez birziklatzea (ikus Errekalde Baserriaren inguruan dauden zaborrontzien argazkia).

Gehitu beharra dago, gure ekonomia-ereduak gero eta produkzio handiagoen aldeko apustua egiten duela. Hori garbi ikusten da nekazaritza ustiapen handietan eta ez hain handietan; **pestizidak** (*glifosato* –minbizia sortzen du–, paration, tetraclorvinfos, malation, diazinon...), **landare transgenikoak** (alergia, asma, mimbizia... eragiten dute), **ongarri kimikoak**... erabiltzen baitituzte uzta gehien lortzeko, ingurumena (lurra, ura...) kutsatuz.

Horrexegatik guztiagatik, beste ekonomia-eredu baten aldeko apustua egin beharra daukagu; ez dugu beste aukerarik. Izan ere, Lur planetan bizitzea posible egiten dituzten baliabide naturalak (ura, lurra, mineralak...) ez dira agortezinak. Gainera, kutsaduraren aurrean, ekosistemek, atmosferak, ozeanoek eta lurzorukoak bere onera etortzeko ahalmena ere mugatua dute –lehen aipatu dugu hori; ozeanoek atmosferako CO₂-a erregulatzeko duten ahalmena–.

Beraz, guzti horri ez ikusiarena egiten badiogu, gure seme-alabak eta Lurreko gainontzeko izaki bizidun guztiak, Lur planeta kutsatu eta pobreago batean bizitzera behartuko ditugu; eta hori onartezina da.



Erlea lorea polinizatzen. Pestiziden erabilpenak erleen populazioak latz murriztu ditu. **Erleak behar-beharrezkoak ditugu;** horiek gabe ez litzaguke erraza izango bizitzea. (ez genituzke frutarik, ezta hainbat edaririk sagardoa adibidez) eta abar izango.

* Telefono mugikorren antenek, mugikorrek eta, igotzen dituzten uhin elektromagnetikoen erleak desorientatzen dituzte, azkenean horiei heriotza eraginez.

© Ainhoa Jauregi.



Ekonomia-eredu berria

Ekonomia berri horrek ez luke kontsumismoaren hazkunde amaigabea ardatz izango. Bertan egingo liratekeen objektu materialak biziraupen luzea izango lukete, ahalik eta zabor gutxiago sortzeko. Gainera, gauzen berrerabilpena eta erabateko birziklapena bultzatuko litzateke (horretarako sortuko liratekeen material berriak %100 birziklagarriak izango lirateke eta horretarako inbertsioak egingo lirateke).

Ekonomia berri honek nekazaritza ekologikoa bultzatuko luke eta izadiaren mugak non dauden eta horiek errespetatzeko gai izango litzateke –egungo ekonomia ekologia-ezaguera aldetik analfabeto hutsa da–. Ekonomia berrian ez litzateke gizakion individualismoa, bakardadea indartuko; lagunartea, auzolana... baizik.

- Erakin zaharrak berritzearen eta ekologikoki egokitzearen alde egingo lirateke.
- Osasuna eta hezkuntza publikoak izango lirateke.
- Ekosistema berreskuratzen eta mantzeko inbertsioak egingo lirateke.
- Ingurumena errespetatzen duten eknologiak erabiliko eta sortuko lirateke (eguzki-panelak, eolikoa, hidrogenoa erregaitzat duten ibilgailuak...) eta hauek oraindik eraginkorragoak izatearen apustua egingo lirateke; baina beti izadiaren mugak gainditu gabe –hidrogenozkoa ibilgailuak mugarik gabe sortzeak, errepide gehiago egitea dakar, ingurumena kaltetuz–.



Alkizako Udala



GFA



www.oilategitik.net

Datorren urtera arte!



Oilategitik, hamahost urte dagoeneko!